



Hasi da
festa garaia

KIROL OSASUN ZERBITZUAK

 KEMEN

☎ 16 22 26
 Faxa: 16 22 27
 Elosegi, 14
 LAZKAO

DIETETIKA ETA NUTRIZIOA

KIROL-DIETAREN PLANIFIKAZIOA ETA JARRAIPENA
 ORIENTAZIO DIETETIKOAK

DIETA INDIVIDUALIZATUAK EGOERA LARRIETAN:
 KOLESTEROLA, HIPERTENTSIOA, HIPERGLUZEMIA, ANEMIAK...
 ARGALTZE DIETEN PLANIFIKAZIOA, KONTROLA ETA JARRAIPENA

Teresa Gaztañaga (mediku nutriologoa)
Naroa Arrieta (dietista diplomatua)

Ugartemendi, 6

Tel.: 88 07 53 - 88 73 93

Faxa: 16 10 48

20200 BEASAIN

TXINDOKI Institutua



IKASKETA MOTAK (97-98 ikasturtea)

✗ **BBB-BUP 2 eta IEE-REM 2**

✗ **LOGSE Batxilergoak**

✓ Natur eta Osasun Zientzien Batxilergoa

✓ Humanitateak eta Giza Zientzien Batxilergoa

✗ **Ziklo formatiboa** (Goi mailako Lanbide Heziketa)

✓ Ingurugiro Kimika

Aurermatrikula epea:
maiatzaren 2tik 16ra

LOGSE BATXILERGOETAN ESPERIENTZIA DUEN IKASTETXE BAKARRA BAILARAN

Azken urteotan LOGSE Batxilergo berrien ezarpen aurreratua egiten ari den ikastetxea, gure bailaran bakarra. Ikasketa mota hauek, maila akademiko altua bermatuz, gehiago begiratzen diete ikasle bakoitzaren nahi eta beharrei, ibilbide egokiak bermatuz. Ohikoez gainera, ondoko gai hauek ikas ditzakezu:

- ✓ *Laborategi teknikak*
- ✓ *Industri Teknologia*
- ✓ *Lurraren eta Ingurugiroaren Zientziak*
- ✓ *Ordenagailuz lagundutako diseinua*
- ✓ *Anatomia eta Fisiologia*
- ✓ *Mekanika*
- ✓ *Psikologia*
- ✓ *Zuzenbidea*
- ✓ *Ekonomia*
- ✓ *Enpresa Antolakuntza eta Kudeaketa*
- ✓ *Administrazio eta Kudeaketa Prozesuak*

INGURUGIRO KIMIKA

Ziklo honen ezarpen aurreratua egingo da. Goi mailako teknikari kualifikatuak formatuko dira ziklo honen bidez. Ondoko modulu hauek osatuko dute:

- ✓ *Ingurugiroaren babesaren Antolakuntza eta Kudeaketa*
- ✓ *Eguratsera igorpenen kontrola*
- ✓ *Hondakinen kontrola*
- ✓ *Uren arazketa*
- ✓ *Kimika-segurtasuna eta industri-higienea*
- ✓ *Erlazioak lan-munduan*
- ✓ *Formazio eta orientazio laborala*
- ✓ *Kalitatea eta etengabeko hobekuntza*
- ✓ *Lantokian formakuntza*

Aurermatrikula epea:
uztailaren 1etik 4ra



GOIERRITARRA
HAMABOSTEKARIA

Argitaratzailea:
Goierritarrak Kultur Elkarte

Dorre-etxea, 1
(Postetxe gainean)
124 posta-kutxa
20240 Ordizia
Tfnua: 88 96 12
Faxa: 88 27 19

Zuzendaria:

Loinaz Agirre

Maketazioa:

Mikel Albisu

Publizitatea:

Josune Agirre eta Argider
Mujika

Erredakzio Batzordea:

Jon Arano, Mikel Albisu, Joseba
Telleria, Ane Martin, Loinaz
Agirre eta Estitxu Imaz.

**Zenbaki honetako kronista eta
kolaboratzaileak:**

Aitor Calvillo, Joseba Telleria,
Xabier Urteaga, Rufino Iraola,
Koldo Urrestarazu, Urko Irastor-
za, Josune Aldabe, Edurne Albi-
zu, Izaskun Salazar, Josune
Amondarain, Nagore Goiburu,
Gabino Murua, Maddalen Her-
nandez, Mikel Garmendia, Na-
roa Arrieta eta Amaia Zeberio.

**Fotokonposizio eta maketa-
zioa: GOIERRITARRA.**

Inprimaketa: Gertu (Zubillaga
9. Oñati)

Tirada: 6.300 ale.

ISSN: 1132-0907

Lege gordailua: SS-926/89

Frankeo kontzertatua: 37/76

**GOIERRITARRAK ez du bere
gain hartzen derrigorrez, al-
dizkarian adierazitako esanen
eta iritzien erantzukizunik.**

HAMABOSTALDIAN NABARMEN

Anastasio Albisu hil da



Anastasio Albisu lazkaot-
tar apaiz euskaltzalea hil
zen apirilaren 14an, 82 ur-
te zituela.

‘Sustraitz’ ezizena zuen
Anastasiok, bere aitaren
jaiotetxetik, Lazkaoko Ur-
bitarte baserriaren inguru-
tik Agauntza eta Sustraitz
errekak pasatzen baitzi-
ren. Euskaltasuna aitaren-
gatik jaso zuen. “Aita
erremitaria zen, baina ba-
zekien euskaraz bere gau-
zatxoak idazten, eta baita
bertako kontuak biltzen
ere. Gasteizko apaiztegira
joan nintzenean euskara-
rik ez uzteko esan zidan”,
esan zuen Albisuk elka-
rriketa batean.

12 urterekin Saturra-
ra joan zen eta 16rekin
Gasteizko Seminaria.
Bertan euskalgiroa aurkitu
zuen, Joxe Miel Barandia-

ran eta Manuel Le-
kuona han baitziren.
Kardaberaz Bazku-
na, euskarazko aka-
demiako kide izan
zen, 1936rarte, gerra
etorri arte. Gerra ga-
raian Donostian izan
zen. 1939an Bergaran
apaiz izendatu zuten.
Arabako Fontetxan,
Trintxerpen eta ondo-
ren Azkoitian bete zi-
tuen apaiz lanak. 28
urte zituen Azkoitiara
iritsi zenean.

Azkoitiko Maxixatzen
herri aldizkariak egindako
elkarrizketa batean On
Anastasiok zioenez, “ge-
rra ondoren Azkoitiko ka-
leetan sortu zen ambiente
txar hori desegiteko bidali
ninduela gotzaiak Azkoiti-
ra esan zidan”.

70. hamarkadan sortu
berriak ziren ikastolentza-
ko testuak prestatzeari
ekin zion. Antzerkigile gi-
sa ere lan asko egin zituen
eta 1992an Euskadi An-
tzerki Topaketek omenal-
dia egin zioten Azpeitian.
Guztira 17 antzerki lan eta
bi eleberri idatzi zituen
Albisuk. “Hauetxek izan
dira nire bihotzaren jabe:
apaiz izatea, euskara eta
Euskal Herri maite-mai-
tea”. Honela laburbildu
zuen bere bizitza.

BOTA BERTSOA



Jon Agirre

Lazkaoko festak

*Doinua: Fernando Amez-
ketarraren marrazkiena*

San Prudentzio pixik ez egin
festak pasa bitartean
ta gurasook jarri gazteak
diruz ta libertatean
tabernariok euskal musika
presente txispa betean
aiton-amonan bixagra danak
lijero jarri artean.

Guztiok jan da edan nahikoa
ez erortzeko flakian
loa uxatu estutu hortzak
juerga dagon tokian
bikote bila baldin bazabiltz
ekin gogor atakian
askoz gehiago lortzen da eta
festak diran aitzakian.

**Eusko Jaularitza-
ko Kultura Sailak,
Gipuzkoako Foru
Aldundiak eta**

GOIERRIKO UDALEK diruz lagundutako aldizkaria



GOIERRITARRA doan

jaso nahi dut etxean

Izen deiturak

Helbidea

Herria

Ordiziako 124 Posta Kutxara bidali

Andoni Sarriegiren gezurrak

Ikastola publiko/pribatu *affaire* bukaezin honetan, eta horien artean auziperatuei (Azpeitia, Beasain, etab.) gagozkiolarik, bada oraindik giza-semerik hauetan sortutako gatazkek asetu ez dutenik, eta liskarren sua elikatzen ari denik. Horieta-koa dugu ezbairik gabe Andoni Sarriegi Jauna. Ikus bestela GOIERRITARRA 112 zenbakia, 'Alkartasuna Lizeoak: Lapurrak' izenburupean argitaratutako lore sorta.

Horrelako trapuak etxean garbitu behar direla usten duenetakoa naiz, baina GOIERRITARRAko irakurleei zor zaien informazio zuzena dela medio, Andoni Sarriegik gure Ikastolari nahi-mahasian egozten dizkionari buruz zenbait argiztapen egin beharrean nago.

Beasaingo Ikastolak, hau da, Alkartasuna Lizeoak, bere euskarri juridikoa izan den Kooperatibaren sorreratik (jada 30 urte pasatxo), bere fundazio oinarrietan txertatu zuen, besteak beste, Ikastola publiko bilakatze-ko helburua.

Eusko Legebiltzarreko 10/88 legearen ondorioz, Ikastolako bazkideen artean zenbait Batzar Nagusi egin dira, Ikastola sare publikoan kokatzearen kuestioa planteiatu dutenak. Guztietan, salbuespenik gabe, bozketen bidez, Ikastola publi-

koa nahi dutenen tesiak garaitu dira.

Baina 1993ko Maiatzako Batzar Nagusian, Ikastolako Bazkideen gehiengoak hartutako erabakien ondorioz, non Ikastola publiko izateko erabaki finkoa hartu baizen, bazkide talde batek, Andoni Sarriegi tartean izanik, inpuignatu eta epaitegian salatu zuten, han hartutako erabakiak gustoko ez zituztelako. Halere, 1994ko Martxoaren 1ean Eusko Jaurlaritzak Alkartasuna Ikastolaren Publikazioa Dekretua indarrean jarri zuen 8 hilabetez, eten behar izan zuen arte, berriro ere Andoni Sarriegik Bilboko Kontentzioso-Administratiboan ezarri zuen salaketa zela medio.

1994ko udazkenean bizi izan zituen Ikastola honek bere historiaren gertakizun tamalgarrienak: Ikasturtea bi aste beranduago hasi zen; Batzorde Errektorea alde bakoitzeko sei kidez osatuta egonik, kooperatibako zuzendaritza organoak blokeaturik suertatu ziren. Ur nahi haietan, Andoni Sarriegi eta bere kideek kanpotik ekarritako sasi-zuzendari bat inposatu nahi izan zuten, irakasleen klaustroa eta Kooperatibako Batzorde Errektorea aintzakotzat hartu gabe. Hori gutxi balitz, ahalegin guztiak egin zituzten Kooperatibako Batzar Nagusi bat egin ez zedin, nahiz bazkideen gehiengo-

ak hori eskatu. Azkenik, Ikastolako bazkide multzo handi batek, kooperatiban zituzten eskubideak berreskura zitezen Tolosako epaitegira jo zuten; ondorioz, epaileak Alkartasuna Kooperatibako Batzar Nagusia egin zedin dei egin zuen.

Geroztik, Alkartasuna Kooperatiba eta Ikastolaren organo zuzendariak gehiengoaren sentiberatasunaren islada dira, Ikastolako elkarbizitza paketsuaren berme. Esan beharrik ez dago, Batzar Nagusi horretako erabakiak ere, Andoni Sarriegi tartean zen bazkide talde berak, inpuignatu eta epaitegian salatu zutela. Berdin egin zutelarik 95ean Batzorde Errektoreak kutoi buruz hartutako erabakiekin, eta 96ko Batzar Nagusiak hartutako erabakiekin, non Kooperatibako estatutoak irakaskuntzako kooperatiba integrala izatera egokitu ziren.

1996ko Irailean bereizketa eman zen: Alkartasuna Lizeotik DBH-BBB-UBI mailetatik 55 ikasle inguru Lazkaoko Ikastolara joan ziren, eta Haur Hezkuntza-Lehen Hezkuntza mailako 90en bat ikaslek 'Andramendi' proiektuan murgildu ziren, Alkartasuna Lizeoan ia 700 ikasle geratu zirelarik.

Zatiketa gauzaturik, kooperatibako estatutoak aplikatzearen, Alkartasuna Lizeoko Batzorde Errektoreak

Ikastola berria babesten zuten bazkideen zerrenda nominala aurkez zezatela eskatu zitzaion Andoni Sarriegi eta bere kideei, bazkide horiek zuten kapital itzulketara gauzatzeari ekitearren. Nahiz Andoni Sarriegik bestelakorik esan, gaurdaino Alkartasuna Lizeoko Batzorde Errektoreak ez du hark aldarrikatutako 500 bazkide horien zerrendarik ezagutzen. Ostean, Andoni Sarriegi tartean den kolektiboak, Alkartasuna Ikastola publikoa izatea eragozten duten prozesu judizialen errekursoak zutik eusten dituzte, horiek erretiratzearren truke, bere proiektora gainfinantziatzea eskatzen dutelarik.

Halere, Alkartasuna Lizeoko Batzorde Errektoreak zenbait ahalegin egin ditu, eta egiten ari da, Hezkuntza Administrazioa tarte, Alkartasuna Ikastola osatzen duten Elkarteen arautegia gairatuz, auziaren amaiera ekarriko duen formula lortu asmoz. Aste Sainduko oporren ondorengo astean idatzita dago gutun hau, eta ezustekorik gerta ezean, Alkartasuna Lizeoak egindako proposamen bati esker, konponketa heltzear dagoela dirudi. Eta amaitzeko, Andoni Sarriegi hitz bi: lapurrak epaitegian salatzen dira, gezurtiak non?

Jose Inazio Arrizabalaga
(Alkartasuna Lizeoko Batzorde Errektoreko Lehendakaria)

Argazkiak honen euskarri argiztapen.

En la edición de esta publicación colabora:



fundazioa
fundación

TXANDAKA

10 urteetan erbestean

Kaixo.

13.000 eta piko kilometroetatik ez dakit nola sentituko duzun lur berde bezain gorri hau. Atlantiar ozeanoaren bestalde zaude eta hala ere zenion Kantauri itsasoko olatuen zarrara sentitzen zenuela. Hemengo berri bat irixten zitzaizunean dizdiratu egiten zenuen, aldiz 'La plata' ibaiaren ertzean Euskal Herriari begira jartzean malkoak ixurtzen zitzaizkizun. Herrimina? Agian...

Montevideoko kaleetan hotzak, bufanda lepoan duzula abiatzen zinen lanera; apenas etxearen alokairurako juxtuko dirua jasotzeko eta gainera "¿Como dize vajco, que no les bastan los 2.000 pesos?!" entzun behar batzuetan.

Gaur Zumaiako olatuetan murgilduko naiz eta zu sentitu arte ez naiz mugituko. Urrutiegiz zaude agian ala? Niri ere malkoak ixurtzen zaizkit.

Han geundela hemengo zenbait opari jaso zenituen: hemengo artzai batek eginiko gazta, zilarrezko lauburua, euskal abestien zinta bat e.a. eskerrak eman zenigun baina zuretzat ez ziren aski opari guzti haiek. Aurpegian igartzen zitzaizun: zerbait gehiago behar zenuen: kuadrilarekin ohizko poteoa, Txindokirako paseoa, sendi oso bat... baina ukatu egiten dizute. Duintasunaren eta herriaren alde zerbait egitearren jarri dizuten prezioa ordaintzera gaitzetsia zaude.

Uruguayko negu hotzean zaude barruan hemengo eguzkia sentitzen baduzu ere, baina lanera joan behar gaur bufanda jantzirik bihar jan nahi baduzu.

Laster arte osaba.

Maddalen Hernandez Irastorza



Beharrezko ikusten al duzu autobus zerbitzu berria?



Amaia Zeberio

**27 urte, euskara irakaslea
lazkaotarra**

Beharrezkoa da dudarik gabe. Orain artekoa ez da batere konpletoa, batez ere ordutegi aldetik. Linea berriak espero dut zerbitzu hobea eskainiko duela.

Oihana Munduate

**26 urte, euskara irakaslea
ataundarra**

Zerbitzu honek batez ere herri txikiei egingo die mesede. Ataunen adibidez, orain, Kaxetara autobus bakarra joaten da egunean, ordutegi txarrarekin.



Garikoitz Makibar

**22 urte, kaldereroa
lazkaotarra**

Gutxi erabiltzen dut autobusa. Gaur egun zenbait herri ez daukate garraio publiko zerbitzurik. Herriak elkarrekin lotuko dira zerbitzu honekin.



GENERALI
Aseguroak

INAKI ARIN BAZTARRIKA

Oriako Pasealekua, 20
☎ 88 87 02
BEASAIN

Zurgindegi mekanikoa

JOSE M. YARZABAL

AURREKONTUAK KONPROMEZURIK GABE

Txindoki, 1. - 3-2 Pab. - ORDIZIA

Tfnoa. eta Faxe: 88 90 17

**ATEAK
LEIHOAK
ESKAILERAK
OBRAK
ERREFORMAK**

TOKI-ALAI JATETXEA

Bataio-jaunartze bazkariak, afariak...

Tfnoa.: 88 89 53

ARAMA

ZINEA

LEGORRETA:

'Tesis', apirilak 28, Herri Zineman, 20:30etan.

BEASAIN:

'Mars Attacks'. Larunbata 26: 19:30 - 22:15; igandea 27: 17:00 - 19:30 - 22:15; astelehena 28, 19:30.

ORDIZIA:

'De que se rien las mujeres?'. Ostirala 25: 22:15; igandea 27: 19:30 - 22:15; astelehena 28: 19:30.

'Space Jam'. Larunbata 26: 19:30 - 22:15; igandea 27: 17:00.

ANTZERKIA

BEASAIN:

Apirilak 25, Sobradun taldearen '30 millones de gilipollas' Usurbe Antzokian, 22:15etan, 'Antzerkiaren Garaia' barruan.

Maiatzak 2, Aurtzaka dantza taldearen 'Dantza berriak, doinu berriei jarriak' ikuskizuna, Usurbe Antzokian, 20:00etan eta 22:15etan, 'Antzerkiaren Garaia' barruan.

HITZALDIAK

BEASAIN:

Apirilak 25, 'Itoizko urtegia' bideo-hitzaldia, Udaletxeko areto nagusian, 19:30etan. Antolatzailea: Beasaingo Gazte Asanblada.

ITSASONDO:

Apirilak 29, Lehen laguntzei buruzko hitzaldia, Mikel Luquek, Eskolan.

Maiatzak 5, Elikadurari buruzko hitzaldia, Mikel Luqueren eskutik, Eskolan.

LEGORRETA:

Maiatzak 3, A. Mendi-luze, A.M. Peñagarikano, X. Euzkitze, X. Zeberio, J. Agirre eta M. Telleria. Gai-jartzailea: 'Txato' Agirre. Herri Zineman, 22:30etan.

ORDIZIA

Apirilak 25, X. Narbar-te, I. Karrera eta E. Goiko-etxea, Boxin elkartean, 20:30etan.

BERTSOAK

ATAUN:

Apirilak 26, A. Otamendi, X. Nazabal eta J. Munduate, Aizkoate elkartean, 20:30etan.

ITSASONDO:

Apirilak 26, I. Lazkano, X. Amuriza, A. Egaña, S. Lizaso, M. Lujanbio eta A. Sarriegi. Gai-jartzailea: Mikel Mendizabal. Errota frontoian, 22:30etan.

IKASTAROAK

BEASAIN:

Maitzaren 5ean hasita, dantza-ikastaroa, Jesus Gonzalez kubatarren eskutik, Ezkiaga Auzo etxean. 3 hilabetekoa. Matrikula 5.000 pezeta. Klaseak astelehen eta asteazkenetan, 15:00etatik 16:00etara.

LOINATZ

Taberna Jatetxea

Bazkari, afari,
ogitarteko, pintxoak



Nagusia, 27 ☎ 882007 BEASAIN

IKASTEK AKADEMIA

Kalitatea eta profesionaltasuna

- ✓ Eskola laguntza
- ✓ Unibertsitarioak
- ✓ Oposaketak
- ✓ Kurtsoak

Maila eta arlo guztiak
Zentru homologatua

☎ 16 01 20 Joan Iturralde, 5 BEASAIN

Lirain

Lurrindegia eta opari gaiak

Orain **CHANEL** produktuak

San Inazio, 14 ☎ 8893 90 BEASAIN



MUJKA LIBURUDENDA

Kale Nagusia, 19

☎ 88 11 94

ORDIZIA



- Iturgintza
- Berogintza

Mendi-Ondo etxea

☎ 88 40 57

ZALDIBIA

Esteban Lasa, 7

☎ 88 80 29

BEASAIN



Iluminazio denda ireki berria!

Euskal Pilota, 4 eta 5

☎ eta faxa: 88 86 88

☎ mugikorrak: 908-576580

eta 908-000831

ORDIZIA

Maiatzaren 8, 15, 22 eta 29an, hiru dimentsiotako kuadroak egiteko ikastaroa, Mila Aldasororen eskutik. Ordutegia: 18:00etatik 20:00etan. Antolatzailea: Geurea ikastola. Informazioa Esteban Lasa, 3an.

ERAKUSKETAK

BEASAIN:

Apirilaren 26tik maiatzaren 1era, Kubako artearen erakusgarri den pintura, Aterpe Tabernan.

MUSIKA

BEASAIN:

Apirilak 26, Metalezko taldeen kontzertua, Udaletxeko Batzar Aretoan, 19:30etan.



GOARDIAKO FARMAZIAK

Astegunetan: Arriola (Plaza Nagusia - Ordizia).

26-27: Azpilikueta (Nagusia, 18-Beasain).

3-4: Jauregi (Santa Maria, 2- Ordizia).

MENDI IRTEERAK

Beasaingo mendizaleak:

Apirilak 27, Irurtzun - Lekunberri.

Maiatzak 4, Ganbo.

Arrano Kirol Taldea:

Apirilak 27, Beriain.

Maiatzak 2, 3, 4, Vignemale.

Ordiziako mendizaleak:

Apirilak 27, Lizarraga - Trinidad-Iturgoien.

Maiatzak 4, Txindoki.

Idiazabalgo mendizaleak:

Maiatzak 4, Irun-Donostia.

DEBALDEKO IRAGARKIAK

Etxebizitzak:

☐ Baserri bat alokatuko genuke, ardiak jartzeko. 887077.

☐ 75 m² -ko lokal komertziala salgai edo errentan Beasaingo Oriamendi kalean. 88 00 65.

☐ Ganbara edo buhardilla salgai Ordiziako Maribartza kalean. Erreformatua eta amueblatua. Prezio interesgarria. 160930 (24 ordu, Elena-Juan Karlos).

☐ Pisu ederra alokatzen da Legorretan. Dei ezazue telefono honetara: 80 60 38.

☐ 120 m²-ko garajea alokatzen da, almatzen bezala edo garaje bezala erabil daiteke. 80 60 38.

Salerosketak:

☐ Opel Corsa, SS-U matriculaduna salgai. 88 18 02.

☐ Bigaia saltzen da Zaldibian. Lehenengoa umekoa eta 8 hilabetez ernai dagoe. 16 14 16.

☐ Solariuma salgai, berria dago. 88 26 31. Arratsaldezu deitu, 2.30etatik 7.30etara.

☐ Mahaia, 6 eserleku, 2 altzari eta lanpara salgai. Antigualekoak eta egoera onean. 88 48 22.

☐ Bi bigai limusin 13 eta 9 hilabetezkoak saltzen dira bere karta genealogikoarekin. 80 04 90.

☐ Macintosh Classic ordenagailua eta inpresora salgai. Tfnoa: 36 03 89.

Ignacio Garmendia Goya

- ✓ Txatarra, altzairu txirbil eta metalen erosketa
- ✓ Neurri ezberdinetako edukiontzien zerbitzua
- ✓ Merkatuko salneurrik egokienak

Alderdieder, 1

☎ 80 64 29 - Faxe: 80 61 14

LEGORRETA

GOIERRIKO KANPO KOOPERATIBA

Ganaduzaleek ganaduzaleentzat sortutako kooperatiba

MOTA GUZTIETAKO pentsuak, ongarriak, lantresnak

Esuskal Herria Kalea
Industrialdea

☎ 88 04 15
☎ 16 07 07

ORDIZIA
OLABERRIA

VOLVO

TOYOTA



ŠKODA

Volkswagen taldea

ANZIZAR, S.A.

Autoen salmenta

Mekanika eta

elektrizitatea

Beasain-Zumarraga, 46 Km.a

☎ 88 17 00 - 88 17 04

BEASAIN



Mikel Garmendia (LAB)

*Langileen eta lan
harremanetarako euskal
esparruaren aurkako
hitzarmena*

1.- Laneko prekaritatea ez da galarazten. Aldi batetako kontratuek bere horretan darrate. Zabor-kontratuak, al-daketa gutxi batzuk besterik ez ditu jaso. Lan edo zerbitzu jakin baterako kontratuak eta ekoizpen egoeragatiko behin-behinekoak, arauak hausteko bide, ez dira behar bezela arautzen. Soilik jarduera berrien bultzatzeko kontratua bazter-tzen da, ugazaberiak are kaskarragotzeko dituen as-moei ez baitie nahi bezela erantzuten.

2.- Kontratu "mugagabe" berria arautzen da. Antza, lan merkatuan sartzeko oztopoak dituztenei zuzendutakoa, helburu dute egungo langile finkoak apurka ordezkatzeko, langileria osoa-rengan segurtasun eza eragiten duelarik. Kontratu horren ezaugarri nagusia bidegabeko irazpen objetiboaren ondoriozko kalte-ordainari dagokio (33 eguneko soldata urteko, 24 hilabete-ko gehieneko mugarekin). Aurreko 12 hilabeteetan bidegabeko irazpen objetiboak edo irazpen-kolektiboak burutu dituzten enpresei kontratu modu horrekin kontratazioak burutzeko du-

Lan erreforma II

**Langileen eta lan
harremanetarako euskal
esparruaren aurkako
hitzarmena**

ten debeku teorikoa, ezere-zean geratzen da, mugatua baitago iraitziak izan diren kategorია bereko langileei eta lantoki berberari dagokionean. Beraz ordezkapenak ez die oztopo gehie-girik ekarriko enpresei.

3.- Irazpen objetiboa erraztu eta merkatu egiten da. Langileen estatutuko 52-c) artikulua zehazgabe-tasun izugarriak, bide ema-ten du, irazpen gehienak bi-dezkatat jo ditzaten, kalte-ordaina 20 egunetara muga-tuz lan-urte bakoitzeko, ha-sita delarik 45 eguneko ehorzketa. Aipatzekoa da irazpena aurretiko sindika-tuen parte hartzerik eza, parte hartzea CCOO eta UGT ren hasierako exigen-tzien artean bazegoen ere, bertan behera utzi behar izan baitute.

4.- Lan banaketari, lan murritzetari, aparteko or-duei, ETT ei buruz, horiek enplegu politika aurrerakoia burutzeko ezinbesteko ele-mentuak direlarik, sinatuta-ko hitzarmenean esakun erretorikoak baino ez dira biltzen, sindikatu sinatzaile-ek egindako sakoneko opa-riak apaintzera zuzenduak. Ez dago inolako konprome-zurik ugazaberia aipatu gaiekiko behartuko duenik.

5.- Negoziazio koplekti-boari buruzko akordioari zentralismo espainiar itoga-ria dario, Estatu mailako sektorekako hitzarmenen defentsa erabatekoan oina-rritua. Euskal esparruan ne-goziatutako hitzarmenen edukia zapuztea du xede, euskal sindikatu- gehiengo-ari Lan Harremanetarako Euskal Esparrua eskuratzeko ekintza sindikalerako giltza den tresna eragotziz. Oro har, akordioak oinarriak jartzen ditu, ostera Langile-en Estatutuko 84. artikulua-ren aldaketa ekarriko duen atzerakada gauzatu dadin.



☎ 88 55 00 ORDIZIA




LADA
Ssang Yong
N-1, z/g
☎ 88 09 47

ARANDIA
Garaiea


AUTOEN KONPONKETA

Iurre Auzoa
OLABERRIA

KEMEN KIROLAK



Zumalakarregi, 1
☎ 88 51 68
ORMAIZTEGI



ondoeta

ALTZAIRUZKO ATEAK:
AUTOMATIKOAK,
BASKULANTEAK,
MARATILDUNAK,
STANDARRAK,
ETA ABAR.

Nagusia, z/g. Tfnoa.: 883102. Faxa: 88 0872 ITSASONDO

ERREZETA



Kontxi Mujika
Oiangu taberna
Ordizia

ANTXOAK OZPINETAN

Osagaiak: antxoak, ozpina, olio, tipula, baratxuria eta perrexila.

Kantauriko antxoak badira askoz ere hobeto. Antxoak garbitu, hezurra kendu eta bi aldeetan zatitu. Ozpinetan jarri 8 edo 10 orduz. Ondoren lehortu eta oliotan ipini.

Zerbitzatzeko garaian, tipula, baratxuria eta perrexila ipini. On egin.

AHOLKUA

Elikadura egokia

du (gutxienez -15 °C-tan) eta deskonjelazio egoki batekin kalitatezko produktua lortuko dugu (deskonjelatu ondoren ez berriz izoztu elikagaien zelulak apurtzen baitira, kalitatea murriztuz). Azkenik, prozesaturiko elikagaien etiketak, konposizioa eta bete behar dituzten temperatura, hezetasun eta kontserbazio kondizioak ere kontutan izango ditugu.

Guzti hau ikusirik, elikagaien kalitate-prezio erlazioa kontutan izan beharko genuke.

Elikagaiak prestatzerakoan, oraindik ere elikagai asko frijitu egiten dira. Nahiz eta tratamendu hau

egokienez ez izan, ahal den neurrian oliba-olioa erabili. Olio honen berezitasuna bere konposizioan datza, honek temperatura oso altuak jasaten dituelako eta ke urdin kutsatzaileak (akroleinak sortuta) galarazten dituelako. Osasunerako ere, oso gomendagarria da olio hau bihotz-gaitxotasunei aurre egiteko.

Elikagaiak ahoratzekoan kontutan izango ditugu; janari produktuen barietatea, mastikaketa eta lasaitasuna jaterakoan. Janariaren energi portzentai banaketa egunean zehar ere garrantzitsua da ere (gosaria %35-a, janaria %45-a eta afaria %20-a) hala nola karbohidrato (%55), gantz (%30) eta proteinen portzentaia (%15) eguneroko dietan zehar.


Argi dago, beraz, heziketa egoki batek alde onuragarriak dituela osasunarengan; batetik kalitatezko produktuak barneratzen ditugulako eta bestetik, nutrizio egoki baten beharrak betetzen ditugulako.



Naroa Arrieta
Dietista diplomatua
Kemen KOZ

Gaur egun oso normala izaten da, etxeko egoera sozio-ekonomikoak familia baten jan ohiturak zuzentzea, halere, familia horrek janariari ematen dion garrantzia, ekonomia bezain inportantea da. Oso gertutik bizi dugu gastronomiaren kultura eta horrekin batera gauza asko izan behar dira kontutan:

Erosketa edo elikagaien harrera: erositako elikagaiak egoera onean egong beharko dira, produktu gordinak (frutak, barazkiak, lekadunak, e.a.) garaikoak izan beharko dira eta ez dute kolpe, kolore, zapore eta usain arrarorik izango. Izoztutako produktuak tenperatura egokietan manten-



LAZKAOKO SAN PRUDENTZIO JAIK



Lazkaoko
Udala



AGURRA

Lazkaotar, herriko seme, eta egun hauetan gure artean izango zareten guztioi, agur bero bat. San Prudentzio Jai hauetan eguneroko lanak eta arazoak alde batera utzi, herritarron arteko harremanak indartu eta jai giroa nagusi izan dadila gure artean.

Udaletxean, zinegotzi, udal langile eta alkate hau Lazkaoren alde ari gara lanean, gure ahalbideen neurrian agertzen diren arazoei irtenbide bat aurkitzen.

Lan hau ez litzateke posible izango zuetako askoren laguntzarik gabe. Lerro hauetatik eskerrak eman eta zuen elkarlana eskatzera natorkizue, zuen ideiak, iradokizunak, kexak eta kritikak Udaletxean agertu eta denon artean herri hobea egin nahian.

Azkenik, ezin ahaztu, arrazoi desberdinak direla eta, gure artean izateko aukerarik izango ez dutenak.

Alkatea: Inazio Estensoro

Jose Kruz Larrañaga istripuz hil

Apirilaren 18an, auto istripuz hil zen Jose Kruz Larrañaga, Beasaingo Indar enpresako burua. 56 urte zituen. 1983ko azaroaren 8an ETA politiko militarrek bahitua izan zen. 11 egunera askatua izan zen, bere familiak 100 milioi inguruko finantza ordaindu ondoren. 1993an, ETak 25 milioi pezeta eskatu zizkion. Goierriko beste hainbat enpresarik ere ETaren eskutitzak jaso zituen eta eskualdeko zenbait udal, sindikatu eta erakundek, publikoki salatu zuten ETaren estortsioa eta elkartasuna azaldu zieten bai Larrañagari, bai Arrua-barrenari.

Indar

Beasaingo Indar enpresa energia eolikoaren produkzioa gehitzen duen "Ingecon W" sistema egiten hasiko da, Iruñeako Ingeteam enpresarekin batera. Azaldu berri dutenez, Beasainen sistema honen aerogeneradoreak egingo dira eta honetarako 100 bat lanpostu sortuko dira.

Juan Mari Olano

Apirilaren 16an libre gelditu zen HBko Mahai Nazionalkidea den Juan Mari Olano zaldibitarra.

Osinalde Saria

Xabier Sukia bertsolariak irabazi zuen Osinalde bertsolari gazteen txapelketa. Gabiriako kronikan duzue informazio zehatza.

Xabier Mendiguren Elizegi

Ignacio Aldecoa ipuin sari-keta, euskarazko sailean, irabazi du Xabier Mendiguren beasaingarrak. Arabako Diputazioak emandako saria da. "Ondo kontatutako istorioa erakargarria" omen da Mendigurenena. Narra-tzaileak aita Morlansen itzuleraren berri izateak gogora ekarritako frankismo garaiko pasarteak kontatu ditu. Bien arteko harreman arraroak zenbait gora-behera izateko bide ematen du, bukaera irekita utzirik. 600.000 pezetako saria jaso du.

Patxi Ezkiaga

"Zauriaren salmoak" olerki liburua kaleratu berria du



Aitor Asurmendi

Zegamarra da Goierritarrak Kultur Elkartaren lehendakari berria, apirilaren 12az geroztik. Aurreko lehendakariak, Dionisio Amundarainek, arazo pertsonalak direla eta, dimititu egin du. Lehendakari berriaren helburu nagusienera bat, GOIERRITARRA aldizkaria kaleratzen duen Goierritarrak Kultur Elkarteko bazkideak gehitzea da.

Patxi Ezkiaga legorretarrak. Argitalpena elebiduna da eta gaztelerazko itzulpena Jokin Otaegi eta Jorge G. Arangurenak prestatu dute. Idazlearen esanetan, erlijioak presentzia soziala galdu du egun, baina galderak oraindik ere hor daude. Eta galdera horietako asko aurki daitezke liburuan.

Joseba Jaka Bekak

Euskalgintza Elkarlanean fundazioak Joseba Jaka I. Literatur Bekadunen izenak kaleratu zituen, apirilaren 16an (Jakaren heriotzaren lehen urtemugan). Guztira 50 idazlek aurkeztu dituzte lanen laginak eta hautatuak hauek izan dira: Koldo Iza-

girre eta Andoni Egañaren eleberrien laginak, Iñigo Aranbarriren eta Rikardo Arregiren poesia lanak, Jon Alonsoren saiaketa, eta Joanes Urkixo eta Patxi Zubizarreta ordiziarren gazte literatur laginak.

Josune Bereziartu

Euskadiko Eskalada txapel-dun dugu aurrean ere Josune Bereziartu beasaingarra. Donostian jokatu zen txapelketa, eta formarik onenean ez dagoela badio ere, irabazle izan zen Josune.

Nerea Goia

Legorretako nesken areto-futboleko jokalaria Euskadiko selekzioarekin jokatu



*Zeurea delako, zator Euskal
Eskola Publikora.*

ORDIZIAKO B.H. INSTITUTUA
OIANGUREN Eraikuntza
☎ 88 08 62

Izen emateko epea:
Maiatzaren 2tik 16ra
(9.30etatik - 14.30etara)

- Kalitatezko heziketa, euskalduna eta dohainik.
- Heziketa integrala: gaitasun eta baloreen tratamendua geletan aplikatua.
- Eleaniztasuna: ingelesa ezezik frantsesa edota alemaniera ere ikasteko aukera.
- DBH-rako: jangela eta garraioa.
- Eskaintza osoa herrian bertan 3 eraikuntzetan banatuta.
- DBH 1-2-3, BBB 2, BATXILLERGO BERRIAK ETA UBI (12 urtetik aurrera).

ETA ETORKIZUNERAKO APUSTUA:

Heziketa Zikloak:

- ✳ Merkataritza (Erdi mailakoa)
- ✳ Merkataritza Kudeaketa eta Marketinga (Goi mailakoa)

du Espainiako txapelketa. 15 urte ditu Nereak eta bera izan zen txapelketako jokalaririk gazteena. Txapeldun atera zen Euskadi.

Carlos Sastre

Beasaingo Loinaz txirrindulari 'klasika nazionala' Carlos Sastrek (Banesto) irabazi zuen. 243 txirrindularik hartu zuten parte eta 164 kilometroko ibilbidea egin behar izan zuten. Mendiko saria Iberdrola-Loinaz taldeko Garatek irabazi zuen.



Aitor Garmendia

Aragoako txirrindulari itzulia irabazi du itsasondorrrak. Erlojuaz aurkako saioa irabazi zuen. Astebeteko karrera bat irabazten duen lehen aldia da Aitorrena.



Gerriko Ikerlan Sariketako beste 3 liburu kalean

Joxe Migel Azurmendi beasaindarraren 'Ataungo euskara'; Nekane Urdangarin eta Leire Munduate ama-alaba ataundarren 'Karobiak Ataunen'; eta Xabier Azurmendi zegamar zenaren 'San Adrian eta inguruen kondaira' liburuak kaleratu berri dira. Gerriko Ikerla Sariketako 6. edizioan irabazle izan ziren lanak dira hirurak.

'Ataungo euskara' lanean, On Joxe Migel Barandiaranek Ataunen bildu eta 'Obras Completas' I, II eta III. liburukietan argitara emandako testuak, guztira

59 kontakizun, aztertu ditu Joxe Migel Azurmendik. Fonetika eta fonologia, morfologia, joskera eta hiztegia aztertu ondoren, ondorioak atera ditu.

EHuko Gasteizko Fakultatean Euskal Filologian Lizentziatua da Azurmendi, eta kartzelan idatzitako lana da.

'Karobiak Ataunen' ama-alaben artean egindako lana da. Ataunen, karegintza lantegiak eman dituen pausoen eta nekeen urratsez urratsezko ezagupideak argitaratzeko saia-

kera izan da. Karobien ebo-luzioa, labeen kokapena, funtzionamendua, karea eta bere erabilera eta beste zenbait argibide eman ondoren, labeen desagerpena eta zutik dirauten labeen buruzko informazioa ematen da.

'San Adrian eta inguruen kondaira' lana argitaratuta ikusi gabe joan zitzaigun gure artetik Xabier Azurmendi zegamar apai-za. Erromatarren urratsak eta Santiagoko bidearen azterketa; tenplarioak Zegaman eta San Adrianen Erdi Aroko eta Aro Modernoko azterketa; San Adrianen azterketa kristau ikuspegitik; eta San Adrianen inguruko bai ahozko eta bai idatzizko literaturaren berri ematen da.

Hiru liburu hauek gaur, apirilak 25, aurkeztuko dira Lazkaoko Udaletxeko Areto Nagusian, arratsaldeko 8etan. Liburuak 700 pezetan daude salgai.

Bi liburuk Ataunekin zerikusia dutela eta, Ataunen bertan ere aurkezpene egingo da, apirilaren 29an, asteartez, arratsaldeko 8etan udaletxean.

Ford

MUJIK

BEASAIN ☎ 88 74 00

Xikel

ARMAIRU
ENPOTRATUAK

- ✓ Barnizatuak
- ✓ Lakatuak
- ✓ Espilluarekin
- ✓ Persianilla

NEVES
BANATZAILEA

Senpere Merkatalgunea - 38 lokala
☎ Erakusketa: 161606 - Mugikorra: 908 772107

BEASAIN

Goierri eta Urola Garaiko
Kirolak badu bere

Aldizkaria

GU Sport

Apirilaren 30ean
zure kioskoan

Zure kirola

GU re helburua

Sport

CERET ZENTRUA DA GOIERRI LANBIDE ESKOLA

Soldadura munduko berrikuntzei aurre hartu nahian

Ceret, Teknologi esperimentazio eta

berriztapenerako zentrua, da Goierri Lanbide Eskola. Merkatuak soldadura munduan sortzen dituen berrikuntzak eta aurrerapenak bildu, aztertu, material didaktikoa prestatzeko konpromezua dauka. Berrikuntza haven berri, interesa azaltzen duten gainerako eskolei eta enpresei zabaltzen die. Informazio zehatzagoa, Joxe Mari Ormazabal, koordinatzaileak eman digu.

Teknologiaren etengabe-ko garapenari aurre egin ahal izateko Lanbide Heziketa zentro batek duen zeregina, ahalbidetuko dizkion metodologiak zehaztea da. Ceret metodologiak horri ematen dio erantzuna.

Euskal Autonomia Elkartean Goierri Lanbide Eskola soldadura teknologian liderra denez, eman zaio soldadura munduan sortzen diren azken berrikuntzak ja-



Joxe Mari Ormazabal da Ceret programa hau aurrera eramateaz arduratzen dena.

so eta ikasleei zabalarazteko ardura. EAEn 5 Ceret zentru daude. "Ikastetxe bat berezia izateko punta-puntako teknologia menperatu behar du, eta hori garatzen jarraitzeko asmoa azaldu behar du. Horrekin batera, beste ikastetxeei azaltzeko asmoa eduki", argitu du Joxe Mari Ormazabalek.

Ceret zentruak punta-puntan egoten jarraitzeko zehaztu duten prozedura honakoa da: "antena jarrita egon behar dugu inguruneak egiten duen aurrerakuntzei. Teknologia berri hori ekarri, landu, material didaktikoa sortu eta beste ikastetxe zein enpresei banatu. Teknologiaren aurrerakuntzaren eta ikasle formazioan gap edo hutsune han-

diegirik ezin da sortu", argitu du Ormazabalek.

Nola soldatu eta horren kontrol-lana nola egin aztertuko ditu etengabe. "Guk teknologiarik ez dugu sortuko, dagoena fabriketan erabili baizik. Sortzen den guztia erabiltzen jakin eta erabili". Azken batean, Lanbide Hezkuntzako ikasleak, eta aldi berean enpresak, prest egon behar dute merkatuan sortzen diren aurrerakuntzen aurrean.

Adibide bat: gaur egun oxiazetilenika, Mig-Mag, Tig... motak erabiltzen dira soldatzeko. Laster baino lehen, plasma, laser, ultrasoinuak eta eletroi-sorta metodoak merkatuan izango omen dira. Beraz, metodo horiek aztertu, erakutsi eta

zabalduko dituzte.


Berrikuntzen berri batez ere 3 leku hauetatik lortzen dute: Europako beste ikastetxe batzuetatik, teknologia sortzen duten lekuetatik, eta teknologi hori erabiltzen dutenetik (enpresak). Aditu teknikoekin ere harremanetan daude.

Zabalkunderako unean, "aktiboak izan behar dugu. Ez dugu zain egon behar beste ikastetxeak materialaren bila etor daitezen, guk eskaini behar dizkiegu". Dena den, ikastetxeek gain, inguruko enpresek ere badute informazio hau jasotzeko aukera. Ormazabalek aitortu duenez, "gehienbat enpresak izango dira gure bezero nagusiak. Lehenengo praktikak gainera, ez ditugu ikastetxean egiten, enpresetan baizik. Materiala ikastaroetan jartzen dugu praktikan. Teknologia oso azkar doa. Eta guk ere oso azkar mugitu behar dugu".

Momentuan ez dute dirulaguntza berezirik jasotzen Ceret zentru izateagatik. Ormazabalen ustez, dena den, hazia ereiten ari dira orain eta fruitua gero jasotzea espero dute.

L.A

IBAI-ONDO



**ZURGINTZA
ALTZARIAK
P.V.C.ko LEIHOAK**

Antzizar Auzoa, z/g
880543 BEASAIN



GESTORIA Biok

(BANDRES)
ASEGUROAK

**Errenta aitorpenak
egiten dira**

**Goierri, 12
behea**

ORDIZIA

☎ 88 44 00
88 12 58

Goierriko autobus zerbitzu berria martxan jarriko du Goierrialdea Bus enpresak uztailaren 1ean

Goierriko garraioaren birrantolaketa plana aurkeztu zuen apirilaren 17an, Jose Julian Irizar diputatuak Beasainen. Goierri hainbeste herri eta hain sakabanatuak egoteak, zailtasunak sortzen ditu garraio zerbitzuan. Autobus zerbitzua eskaintzen duten 4 kontzesiodun daude: Pessa, Sarasola, Etxabe eta Gaiara. Azken bi enpresa hauek, Goierrialdea Bus enpresa bakarria eratzeko akordioa lortu da. Uztailaren 1ean jarriko martxan zerbitzua.

Goierrialdea Busek 14 autobus izango ditu, horietako 6, nagusiki erabilera orokorreko zerbitzuetarako izango dira. Autobusen prezioa guztira, 210 milioi ingurukoa da eta Diputazioak finantzatuko du oso-osorik. Kontzesio berri honetan 19 udalerrri sartzen dira, guztira 50.000 biztanle inguru. Urtean 430.416 kilometro egingo dituzte autobusek.

Erabilera orokorreko zerbitzuen ibilbideak honako hauek izango dira:

- Zaldibia-Ordizia-Beasain-Idiazabal, 12 kilometrokoa.

- Ataun-Lazkao-Ordizia-Beasain-Segura-Zegama, 26 kilometrokoa. (Lazkao-Ordizia-Beasain tartean zerbitzuak indartu egingo di-



ra).

- Legorreta-Itsasondo-Ordizia-Beasain-Ormaiztegi-Zumarraga Ospitala, 22 kilometrokoa.

- Alzaga, Arama, Gabiria, Gaintza, Mutiloa, Olaberria eta Zeaingo udalerririk joan etorriko bi zerbitzu izango dituzte Ordizia edo Beasainekin lotzeko.

Ikastetxe eta langileen garraio zerbitzua enpresa honen esku egongo da.

Alegazioak

Ustiapen Plana eta Baldintzen Orria jendaurrean egon den bitartean Ataun, Idiazabal eta Zaldibiko udalek alegazioak aurkeztu dituzte.

Ataungo Udalaren ustez zerbitzuek Zaldibia eta Idiazabalgo udalei eskaintako zerbitzuen ereduaren antzekoak izan behar dute, kopuruari, maiztasunari eta ordutegiari dagokionez. Gai-

nera, ordutegia biztanleen beharretara egoki behar omen da, batez ere ikastetxeetako eta lantegietako beharrei, Aiako auzoak herri txikiak adinako zerbitzuak behar dituela eta, azkenik, beharrezkotzat jotzen dute larunbat eta igandetan zerbitzu batzuk Lizarrustiraino iristea.

Idiazabalgo Udalak larunbat eta jai egunetan zerbitzu batzuk aldatzea proposatzen du eta, era berean, eskualdeko zenbait herrietako jaietan zerbitzu bereziak jartzeko aukera aztertu dabil.

Zaldibiako Udalak, berriaz, herri txikietako zerbitzuen maiztasuna handitzeko iradokizuna egiten du eta, gainera, asteburu eta jai egunetan Ordiziatik Zaldibiara zerbitzu bat jartzeko gaueko hamarretan, inguruko herrietako festetan zerbitzu bereziak eskaintzeko eta zerbitzuetako ordutegia

treneko ordutegiarekin koordinatzeko.

Diputazioak alegazioei honela erantzun die: Ataungo udalerriko egitura geografikoa eta herritarren sakabanaketa eta, bestalde, kontzesio berriaren giza baliabideak eta bitarteko materialak kontuan izanik, San Gregoriorainoko joan-etorriko 3 zerbitzu berri sartu dira eta lineako autobusekin zerbitzua ezin da Kasetatik Aiarraino luzatu, ibilgailu horientzako ez baitago errepidean nahikoa segurtasun. Lizarrustiko naturgunera joateko asteburuetako zerbitzuak, bere ezaugarriengatik, ezin dira ohiko zerbitzu erregularren barruan egin.

Larunbat eta igandetako zerbitzuak aldatzeko Idiazabal eta Zaldibiko udalen alegazioak aurreikusita dagoen ustiapen planaren barruan egokitu ahal izan dira, baina inguruko herriko festetan zerbitzu bereziak egiteko eskaerari trataera berezia eman behar zaio. Era berean, adierazi behar da proposatutako ordutegiak, ahal den neurrian, ikastetxeetako eta langileen beharrak kontuan hartuz eta trenarekin koordinatuz egiten saiatu garela eta, gainera, zerbitzua erabiltzea erraztuko duen ordutegia errespetatuz.



**LAZKAOKO
MAIZPIDE
euskaltegia
barnetegia**

XXIII. UDAKO EUSKAL IKASTAROAK

16-12 URRATSAK bakarrik, ALFABETATZEN; HIZKUNTZ ESKAKIZUNAK; ALFABETATZE TEKNIKOAK, SAKONTZEN.

6 IKASTORDU EGUNEAN, BARNETEGIAN NAHIZ KLASEAK BAKARRIK

✓ Uztaila: VI-30/VII-18

✓ Abuztua: 4-29

✓ Iraila: 1-26

MATRIKULA MAIATZAREN 7TIK AURRERA.

INFORMAZIO GEHIAGO Tel.: 88 92 31 - 88 92 32

HABEREN dirulaguntzaz.

XABIER GARMENDIA LAZKAOTARRA, ITSASUNTZIKO KAPITAINA:

"Barku baten garaipena elkarren artean ondo konpontzea da"

Xabier Garmendia lazkaotarra itsasuntziko kapitaina da. Lehorrekia itsasoan, 36 urte ditu eta azkeneko kontratuarekin, 3 hilabetez itsasoan eta beste 3 etxean egiten ditu. Lurrik zapaldu gabe egin duen denborarik luzeena, 6 hilabetekoa da. Lehorrekoontzat hain ezezaguna den itsaso eta itsasuntziaren berri eman digu lazkaotarrak.

Urte askotako ikasketak egin behar izan ditu Xabierrek kapitain postura iristeko. Portugaletako Nautiko Eskolan 5 urte ikasi zituen, 1987ko irailean bukatu zuen. Aurretik lehenengo piloto titulua atera zuen. Eta bigarren piloto titulua 1991n. Hau guztia praktikak tartekatuz. "Titulu bate-tik bestera pasatzeko 1.000 eguneko esperientzia eskatzen dute, ia 3 urte eta erdikoa". Kapitainaren azken titulua, 1995eko azaroan atera zuen.

- Lehorrekia itsasoan nagusi?

- Nahiz eta harrigarria izan, Lazkao badauka bere historia itsasoan. Garai batean, baserriko seme asko itsasora joan zen, nire aita eta beste lau lazkaotar esaterako. Nire aitak 10 urte egin



zituen itsasoan. Itsaso giroa egon izan da beti familian.

- Nola gogoratzen duzu itsasuntzian sartu zinen lehenengo aldia?

- Ez zait sekula ahaztuko. Lehenengo aldia barku batean sartu nintzenean, 3. mailan nenbilen. Barkua Pasaira etorri zen eta Bilbora joan behar ginen kargatxo bat egitera. Itsasoa barebare zegoen eta Donostiatik Bilbora, 2 orduko bidaian, 10 aldiz txala bota nuen. Kapitainak esan zidan ogibide hori uzteko eta beste bat hartzeko, ez nintzela gai. Lehenengo hiru hilabetean oso gaizki pasatu nuen.

- Zein motatako lana egiten duzu?

- Arrantzaleei kontsumoa, gasoila eman. Beraiek zein behar daukaten esaten digute eta beraiekin ados jarrita, gasoila ematen diegu.

Barkua orain Malvinasen dago. Barkua errusiarra da eta 27 errusiar doaz eta entregak koordinatzera goaz.

- Kapitainaren lana zein da?

- Ofizial bakoitzak bere arloan mugitu behar du. Lehenengo ofiziala beti karga eta deskarga arloan mugitzen da; bigarrena publikazio, liburu, cartas nauticas... zuzentzen; eta hirugarrena seguridade arloan. Kapitainaren misioa da horiek denak koordinatu eta portura iristean barkua onartua izan dadila. Sanidade, seguridade, agintari aldetik onartua izan dadila. Autoridade aldetik gutxi dauka, dena lurretik agintzen baita. Kapitainak bere azpian dauden esfortzuak koordinatu, eta barkuko bizimodua ondo joan dadila saiatu behar da.

- Zer izaten da gogorre-na?

- Itsasoko arazorik handiena harremanetan dago. Oso indibidualistak gara, elkarrekin ez dugu erlazio handigirik izaten. Introbertidoak bihurtzen gara. Barku baten garaipena da elkarren artean ondo konpontzea, eta ez ondo kargatu edo deskargatzea. Kontuan izan behar da

itsasoan 6-7 hilabete pasatzen direla. Ez daukagu lagunik. Guk esaten dugu lagunak lurrean daudela. Gu barkuko lagunak gara.

Ni lurrean oso soziala naiz baina barkuan asko aldatzen naiz. Nire lehenengo esperientzia izan zen, naitzen bezala joatea eta oso gaizki pasatu nuen. Oso mundu itxia da. Irakurri, telebista ikusi, panpina puzgarriak... bakoitza bere kasa moldatzen da.

- Zer moduz moldatzen zara marinelekin?

- Oso hierarkizatua dago barkuko bizimodua. Ikasten ari nintzenean, lehenengo gauza esan zidatena da, zu ofiziala zara eta zu ofizialekin mugitu behar zara. Besteak marinela dira. Jendea ez da nahastu behar. Baina nik ez dut hori onartzen eta sekula ez dut ondo eraman.

- Lurrera etortzean jasanekin egoten omen zarete.

- Urteak pasatu ahala guxtiago kostatzen zait lurreko bizimodura jartzea. Baina kanpaina asko izan dira gaizki pasatu ditudanak. Jasan ezina baino okerrago egoten gara sarritan. Familia askotan aita itsasotik itzultzean kaosa izaten da etxean. Denbora gutxian gauza asko egin nahi izaten di-

ITXURRENE
T A B E R N A

Bazkariak
Jaunartzeak
Bataioak...

☎ 885759 LAZKAOMENDI



RENAULT
AGENTZIA

LAZKAO GARAJEA

☎ 88 24 42 - 88 89 01 - Faxe: 88 89 01

Senpere Industrialdea
LAZKAO

tu. Eta emazteak seme-ala-bei emandako heziketa oso arraroa egiten zaio. Oso indibidualistak eta egoistak egiten dira itsasoan, orduan besteentzako gauza normalak direnak, haurrentzat arraroak izaten dira.

- **Lan arazorik ba al dago?**

- Ofizioa jende gutxik ikasten du. Gu 250 lagun hasi ginen baina gehientxanak lurrean daude. Krisi handia egon zen, Espainian barkurik ez dagoenez, kanpora joan behar baita. Bestalde idilikoa zen portu bakoitzean emakume bat eta herrialdeak bisitatzeko ustea. Hori ez da egia. Orain berriz ere jendea Nautika eskoletara itzultzen hasi da, baina beste mentalitate batekin. Espezializatu gero lurrean gelditzeko. Kapitain gutxi daude, ez dago lanik hemen, kanpoan bai.

Tripulazioan emakumezkoak sartzen hasi dira, norbegiarrak batez ere.

- **Lanbide gogorra al da?**

- Guretzat hainbeste, baina marinelenzat bai. Normalean marinelek 10 ordu lan



380 metro ditu argazkiko itsasuntziak.

egin behar dute. Larunbat eta igandetan barne. Lehenengo 70 ordu berezi edo extra egin behar dira konpainiarentzat. Eta 71. ordua, lehenengo ordu bezala kontatzen dute. Ordu extrarik ere ez dute sekula kobratzen.

- **Azken urteotan aldatu al da egoera?**

- Filipinoak oso zapalduak izan dira beti itsasoan. Orain, ordea, egoera oso ona lortu dute. Orain Hego Amerikako jendea dago zapaldua. Badaude hilean 14.000 pezeta irabazten duten marinela. Sri Lankakoak dira merkeenak. Lehen Filipinoak ziren merkeenak, baina Noruegak interes handia sartu zuen Filipinan. Eskolak sortu dituzte eta oso formazio onarekin ateratzen dira. Marinelen sindikatua

oso indartsua da eta lortu dute 10 urtetan itsasoko parrak izatetik jende errespetatua izatera.

- **Zein azpiegitura du itsasuntziak?**

- Kamarote edo kabina indibidualak, dutxa eta bulego txiki batekin. Sukaldea komuna da, baina ofizialek leku batean eta marinelek beste batean jaten dute. Jana berdina da gaur egun, lehen ez. Oraingo barku modernoek Self service daukate eta berriro denak elkartu egiten dira. Egongela bideoarekin, gimnasioa, liburutegia eta batzuetan igerilekua ere badago.

- **Janaria?**

- Kongelatua. Portu batera iristean barazkiak jaten ditugu, baina bestela kongelatua. Sukaldaria nongoa den arabera, alde handia dago.

Batzutan ondo jaten da eta besteetan gaizki. Honduras-ko sukaldari bat edo galiziar bat egotea ez da gauza bera.

- **Janzkera?**

- Uniformea erabiltzen dugu, zoritxarrerako. Ni sekula ez naute behartu. Baina azkeneko hiru lanak, Espainiako konpainia batekin egin ditut eta hilero 50 dolar ematen zizkiguten uniformea erosteko. Jangelara al-kandora txuriarekin, praka urdinekin, galtzerdi urdinekin, zapata beltzekin, galoiekin, korbatarekin eta txaketarekin joateko aukera geneukan. Nik galoiak, gorbata eta txapela ez ditut sekula jantzi.

- **Zer da hobe: igeri jakitea ala ez jakitea?**

- Niretzako ez jakitea, sufri-mendu gutxiago daukazu. Hala ere, Nautikan sartzeko igeriketako proba bat pasatu beharra dago.

- **Eta kapitaina al da bar-kua uzten azkenekoa?**

- Ez dut uste. Ni behintzat lehenengoa. Behin kapitain batek esan zidan: kapitainak oso gutxi gara, iraunbizi beharra daukagunak gu gara; marinela asko daude.

Grupo Bateak
SEGURUEN PROFESIONALAK

MUNDUATE

Hirigoien, 12
Tfno.: 88 86 20
Tfno. mugikorra: 908 57 91 92
Faxa: 88 91 18
LAZKAO

M. ARTOLA
MODELOAK

Fundiziorako modelo eta plaken tailerra.

Zubi Erreka, z/g
88 79 30

LAZKAO

Euskalerria, 34
AZPEITIA - 816179
Elosegi, 2
LAZKAO - 887490
San Inazio, 17
BEASAIN - 889707
Grazineberri-e
ATAUN - 180364
Sta. Maria, 1
ORDIZIA - 162320

Ohindegia

ERRATO
UNDI

Apirilak 25, ostirala:

- ✓ 16:00etan: Gaztetxoan xake txapelketa Plazan.
- ✓ 20:00etan: VI. Gerriko Ikerlan sarietako liburu aurkezpena Udaletxean.
- ✓ 22:30etan: Boxeo jaialdia Kiroldegian: Euskadi - Gaztela Leon. Montxo Quina lazkaotarra eta Iñaki Gorostidi, harri jasotzaile, boxealari ohiari omenaldia.
- ✓ 23:30etan: Izotz taldearekin dantzaldia Plazan.

Apirilak 26, larunbata: haurren eguna

- ✓ 10:00etan: Jubilatuen ibilaldi neurtua.
- ✓ 11:00etan: Haur Alkate-Alkatesaren ongietorria herriko gaztetxoei, txupinazoa eta maskotaren aurkezpena.
- ✓ 11:30etan: Herri mailako txirrindulari proba, 14 urtetik gorakoentzat.
- ✓ 12:00etan: Haur jokoak Plazan.



- ✓ 14:00etan: Gaztetxo bazkaria Kiroldegi aterpean.
- ✓ 16:00etan: Kuadrilen arteko futbol finala.
- ✓ 17:00etan: Tutik Ere pailazo taldea Plazan.
- ✓ 17:00etan: Futbol partidua: Lazkao - Ordizia, Arizti Handi futbol zelaian.
- ✓ 18:30etan: Saskibalo partidua: Lazkao - La Salle, Kiroldegian.
- ✓ 18:30etan: Buruhandiak, txistulariekin.
- ✓ 19:30etan: Drindots musika taldearekin karaokea.
- ✓ 20:00etan: Gipuzkoako herri arteko eskuzko pelota: Lazkao - Amezketa, Kiroldegian.
- ✓ 21:00etan: Zawopiko maskotari agurra.
- ✓ 23:00etatik 3:30ak arte: Drindots musika taldearekin dantzaldia.
- ✓ 24:00etan: Mozorro gaua eta Koxkola txaranga.

Apirilak 27, igandea:

- ✓ 9:00etan: Goizeresia Tolosako dultzaineroekin. Helduen xake txapelketa Kiroldegian. LIV. Lazkao Txirrindulari proba: Sub-23 eta Elitea.
- ✓ 16:00etan: Toka txapelketa Plazan.
- ✓ 18:00etan: Gaztetxoan danborradaren irteera, amaiera Plazan izango da.
- ✓ 20:00etatik 1:30ak arte: Camp berbena, Plazan.

Apirilak 28, astelehena: San Prudentzio eguna:

- ✓ 9:00etan: Goizeresia Lazkao Antzar Gazteak txistulariekin.
- ✓ 10:30etan: Prozesioa. Herriko korporazioa, Antzar Gazteak txaranga eta Oin Arin dantza taldeak.
- ✓ 11:00etan: Prudentzio Deunaren ermitan Meza Nagusia.
- ✓ 12:00etan: Artisau azoka

Garin

OKINDEGIA

Hirigoien, 14 | Pl. Nagusia, 5
 ☎ 16 23 36 ☎ 88 04 33
LAZKAO **ORDIZIA**

Loradenda

EGUZKI-LORE

- Andregai erramuak eta erregaliak
 - Kotxe eta eliz apainetak
 AMAREN EGUNEAN, MAIATZAK 4, GOIZEAN ZABALIK

Hirigoien, 24
 ☎ 88 49 65 **LAZKAO**

DAMA

ILEAPAINDEGI-ak

Festa onak opa dizkizue!!

Hirigoien, 16
 ☎ 88 58 95 **LAZKAO**

PATXI ELORDI

HARATEGIA

☎ 88 93 57
 Mikelar, 1 **LAZKAO**

UNAI

ARRANDEGIA

Ondo ibili festetan!

Gurutze, 4
 ☎ 88 79 33 **LAZKAO**

MIKEL

OPTIKARI
 OPTOMETRISTA
 DIPLOMADUNA

OPTIKA

Elosegi, 48
 ☎ 88 09 35
LAZKAO

ARRIARAN

MERTZERIA

Haurren jantziak

Hirigoien, 12
 ☎ 16 06 82 **LAZKAO**

ALUMINIO ETA PVC AROZTEGIA

Eskatu aurrekontuak konpromezurik gabe

AZKARATE IBABE INDUSTRIALDEA
 Tfnoa.: 88 81 01
LAZKAO

Plazan: saskigintza, eskuargile, egur taila, keramika, gaztagintza material, pelota, eskupetagile. Montte eta Korta dultzainero eta Xapre eta Zaharra trikitilariak alaiturik.

✓ **17:00etan:** Oin Arin dantzataldea.

✓ **18:30etan:** Goierriko herrien arteko pelota partidu finalak.

✓ **20:00etan:** Egan, Plazan.

Apirilak 29, asteartea:

✓ **11:00 - 19:00:** Haurrentzako parkea, San Benito ikastolako jolastokian.

✓ **18:30etan:** Gaztetxoek karate eta ballet erakusketa Kiroldegian.

✓ **19:00etan:** VIII. sardina jana Plazan.

✓ **20:00etan:** Buruhandiak, Antzar Gazteak txistulariekin.

✓ **22:00etatik 1:00ak arte:** Gaztetxoentzako diskoteka Plazan.

Apirilak 30, asteazkena: kuadrila eguna

✓ **12:00etan:** Kuadrilen irteera Txalaparta txarangarekin.

✓ **12:30etan:** Kuadrilen arteko jokoak plazan.



✓ **18:00etan:** Karaokea kuadrilrentzat.

✓ **23:00etan:** Su artifizialak, Zarazagozana pirokteniaren eskutik, Zubizkitza aldean.

✓ **23:30etan:** Drindots musika taldearekin dantzaldia.

Maiatzak 1, osteguna:

✓ **9:00etan:** Goizeresia Montte eta Korta dultzaineroekin.

✓ **10:00etan:** Eskualdeko V. Igeri lehiaketa Kiroldegiko igeritokian.

✓ **12:00etan:** Bakailao lehiaketa Plazan.

✓ **16:00etan:** XVII. Suelto Dantza txapelketa Plazan.

✓ **19:30etan:** Buruhandiak Antzar Gazteak txistulariekin.

Lazkaomendiko jaiak

Maiatzak 3, larunbata:

✓ **16:00etan:** XXI. Lazkaomendi Txirrindulari Proba.

✓ **20:00etan:** Amaia Zubeldia eta Ruth Arizmendi trikitilariak, Ixurrene taberna atarian.

✓ **21:00etan:** Auzo afaria Lazkaomendiko elkartean.

✓ **23:00etan:** Zubeldia eta Arizmendi trikitilariak.

Maiatzak 4, igandea:

✓ **11:00etan:** Meza Nagusia, San Juan Ante Portam Latinam ermitan, Udal korporazioa bertan delarik.

✓ **12:00etan:** Jokoak.

✓ **13:00etan:** Xabier Zeberio eta Aitor Mendiluze bertso-larien saioa. Ondoren Epelde anaien trikitixa saioa.

✓ **17:30etan:** Herri kirolak: txinga, trontza, koskol, lasterketa eta asto karrera. Jarraian Faustoren erakustaldia.

✓ **18:30etan:** Bertsolarien bigarren saioa. Jarraian Epelde trikitilariak.

Txoznetako egitaraua

Udalak ekintza hauek debekatu baditu ere, txoznetako komisioak ekintzak egitea erabakia du.

✓ **Ostirala 25:** 'Presoak Euskal Herrira' enkartelada, **20:00tan.** 'Fist Fucking' eta 'Declive' taldeen kontzertua. **22:30etan.** Goizaldean txokolatea.

✓ **Larunbata 26:** Kontzertua, 'Ezin izan' eta '% 30', **22:30etan.**

✓ **Igandea 27:** Trikipoteoa eta Zaldibiko antzerkia, **19:30etan.**

✓ **Astelehena 28:** 'Euskal Herria Askatu', **20:00etan.**

✓ **Osteguna 1:** Txokolate jana.



*Eguneroko
arrautza
ezin hobeak*

☎ 16 09 71

Elosegi, 25 LAZKAO



**BEREBILEN ELEKTRO
KONPONKETAK**

**HIRIBARREN, 17
TFNOA.: 88 74 58
LAZKAO**



✕ Eguneroko menua
✕ Afariak

**Euskadi Enparantza z/g
☎ 16 19 66
LAZKAO**

Tabernariak San Prointziotan

- Aizak, hi, lau zurito eta bi kalimotxo!

- Oraintxe zijoztek!

- Hi, rubio, bi Gin-Kas eta bi Keler txiki!

- Etxoin pixkat, dedio!

Honelakoxea izaten da, gehien-gehienetan, tabernarien jarduna festetako edozein gauetan. Egia esan, besteok, barraren kanpoaldean gaudenok, hain zuzen, urte osoan San Prointziok noiz etorriko zain egoten garen bitartean, tabernariak ahaztuxe uzten ditugu. Beraiek, baina, izaten al dute gogorik festak iristeko? Gisa honetako galderek erantzuna izan dezaten, herriko tabernari zenbaitekin mintzatu gara.

Normala denez, denetarikorik erantzunak jaso ditugu,



Gazteak dira tabernariekin ondoen portatzen direnak.

gu, baina, oro har, argi geratu da festetan inor gutxi gozatzen duela barraren atzealdean. Nolanahi ere, salbuespenak izaten direla aitortu digute, kuadrila eguna eta bertan izaten den giroa, esaterako; honexekin gozatzen omen dute gehien.

Festaren alde txarrak aipatzerakoan, hainbat iritzi jaso dugu. Herriko tabernako Nerea Garmendiak, Manuel Eneko Santik, Gerrikoko Pitesek eta Estan-koko Iñaki Insausti 'Txurdo'k, adibidez, festen aurreko egunetan eskariekin izaten dituzte buruhauste

handienak. Azken honek, gainera, taberna barruan sortzen den zarata eta iskanbila ez ditu batere gogoko. Albokako Juan Mari Begirastainek, berriz, gaur egun bertsolarien falta somatzen du, San Prointzio egunean aritzen ziren bertsolarien falta, alegia.

Egun hauetan lana barra-barra izaten dute tabernariak; hala ere, festak iristeko gogoia ere badute; izan ere, Giroako Juan Mari Sanzolek dioen bezala, dirua egiteko aukera paregabea ikusten dute, eta probetxua atera behar zaie honelako egunei. Dirua ateratzeko, ordea, ondo prestatu behar da dena. "Festak ikasleen azterketak bezalaxe dira", dio Iñaki Insaustik; "ondo

LAZKAO
TABERNA

Jai zoriontsuak herriari!!

GURTZE, 6 ☎ 88 48 22 LAZKAO

OSAKI

- * Sendabelarrak
- * Naturopata
- * Masajista

Ana Mari Egea
☎ 88 93 62

Mikelar, 1 LAZKAO

AINARA
ESTHETICIEN TITULATUA

- ✓ Argizari epel eta beroekin depilazioa
- ✓ Dekolorazioa
- ✓ Makilari eta aurpegi garbiketa
- ✓ Manikura eta pedikura
- ✓ Gorputz maisaiak

Mikelar, 2 (eskatu ordua aurrez)
☎ 88 30 23 LAZKAO

OIARBIDE harategia
festa onak opa dizkizuegu
Odolkiak eta bertako haragia

Elosegi, 52 ☎ 88 17 17 LAZKAO

Elosegi, 15 ☎ 16 05 16

IKER errekadista
Lazkao - Donostia zerbitzua
Eguneroko eraman-ekarriak

☎ 88 29 26
908 - 77 14 11

Gurutze, 3 - 3.A
LAZKAO

Etxe - Zuri
Sagardotegia

Etxe-Zuri baserria
Tfnoa.: 88 20 49
OLABERRIA

Sagardoa txotxetik urte guztian
Sagardo denboralditik kanpo ere irekita
Bataio, jaunartze, lagunarteko otordu, despedida, e. a.

prestatuz gero, gauzak biki-
kain joaten dira, oro har".
Festak iristeko gogoia bai,
beraz, baina baita ahalik
eta azkarren igarotzeko go-
goia ere; a ze lasaitasuna ta-
bernariarentzat!

Bestalde, gaurko gazte-
ok festetan ongi pasatzen
ba al dakigun galdetxean,
baiezkoa izan da guztiek
emandako erantzuna. "Ba-
dakizue disfrutatzen, bai,
eta gainera, zuek portatzen
zarete ondoen tabernarie-
kin". Jende helduxeagoak,
nonbait, arazo gehiago eta
larriagoak sor omen ditza-
ke.

Bizpahiru anekdota ja-
rraian. Herriko Tabernako
Nerea Garmendiak kontatu
digunez, taberna ezin itxi
zebiltzaneko batean, han
gelditutako azken "pa-
rranderoek" taberna gar-
bitzen lagundu zien berta-



koei, erratza pasatzen, e.a.
Eskertzekoa, ezta?

Giroatik eta Gerrikotik
ere ba omen da esatekorik.
Juan Mari Sanzolek, adibi-
dez, duela pare bat urte bi
gazte errekarara erori zirene-
koa gogorarazi digu.
"Erorketa ikusgarria izan
zen". Zorionez, ez zitzaien
ezertxo ere gertatu lagun

hauei. Pitesek, bestetik,
festen azken eguna gogo-
ratzen du. "Tabernariok
tabernak itxi eta afaltzera
joaten ginen elkarteren ba-
tera; afaldu ondoren, be-
rriz, Legazpi aldera, pa-
rrandara".

Tabernarien kontuekin
bukatzeko, kritika gogoz
etorri zaigu Juan Mari Be-

girstain, Albokako taber-
naria. "San Prointzioak
gaizki antolatutako festak
dira: herritarrek ez dute
parte hartzen bertan; Uda-
lak guztia izaten duenez
antolatuta, herritarren
partaidetza asko mugatzen
da". Halere, geurea ere ba
omen da errua. "Festen ar-
dura bakar batzuegan uz-
ten dugu, eta jendearen
partaidetza behar-beha-
rrezkoa da festak hobeak
izan daitezen".

Denetarik entzuteko au-
kera izan dugu, beraz, le-
rroon bitartez. Tabernari-
ek festak nola bizi dituzten,
gehixeago ezagutzen saia-
tu gara, behintzat. Besteok
bezalaxe, ea ahalik eta on-
doen igarotzeko paradarik
izaten duten egun hauetan!

Koldo Urrestarazu
Urko Irastorza

GASTEIZ

ILEAPAINDEGIA

Festa onak pasa!!!

Hirigoien, 24
☎ 88 05 83

LAZKAO



ATAUN S. MARTINGO
BARANDIARAN Anaia

**itxondo
roztegia, C.B.**

41 Posta Kutxa
Zubierreka, z/g

☎ 16 09 31

LAZKAO

TAPIA



Instalazio
elektrikoak

Ibabe Industrialdea, 18
82 postakutxa

☎ 88 95 94
LAZKAO



AUTO ESKOLA

Ondo pasa festak!

TELEFONOAK:

Lazkao: 88 72 99

Beasain: 88 18 96



INTXAR RONDO

JANTZIAK

FESTAK

ONDO

IGARO!!!

Uhaitz, 3

☎ 88 08 40

LAZKAO



NEGUERUELA

**BITXITEGIA
ERLOJUTEGIA**

☎ 16 08 30

Hirigoien, 12

LAZKAO

LAZKAO

Antzarrak elkarte merkatu —eta zerbitzu— elkar-
tea da eta iaztik martxan
dago, irailaren amaieratik,
hain zuzen. Herriko kom-
ertzio ezberdinen hain-
bat arazo berdinak edo ber-
dintsuak izanik, komertzio
hauen eskubideak eta ara-
zo nagusienak defendatze-
ko sortu da aipatu elkarte.

Lehendik ere egin zegoen
saiakeraren bat mota
honetako elkarte bat sor-
tzeko, baina ez zuen arra-
kastarik izan. Egun, ordea,
aurrera ekiteko asmoari
eutsi nahi zaio.

Zein ditu, baina, helbu-
ru nagusienak? Antzarrak-
eko kide den Javier Jaure-
gik esan digunez, komer-
tzioak sustatzen dituen
ekintzak defendatzea eta
bultzatzea da, batez ere,

Antzarrak elkarte herriarrazon zerbitzura

helburuetariko bat. Hala-
ber, lazkaotar orori eraku-
tsi nahi zaio ez duela zer-
tan joan beste herri batera
produktuak aukeratzera,
izan ere, herrian bertan
egindako erosketen kalita-
teak eta barietateak gustura
utziko du.

Bestalde, aipatzekoa da
elkarteak urtean barrena
ekintzaren bat edo beste
antolatu edo bultzatuko
duela; honela, elkarteak
berak ordainduta, haur-
parkea ipiniko dute herriko
festetan.

Kideak astelehenero
biltzen dira beren arazoez
eta kontuez aritzeko. Nor-
baitek elkartean sartu nahi
izanez gero, elkartekoekin
hitz egin besterik ez du.

*Koldo Urrestarazu
Urko Irastorza*



'Mintza hadi Geurean'

Josu Kondek
egindako
eranskailua
izango da San
Prointzio haue-
tan paparrean
erabiliko dena.
Antzar baten
marrazkiak laz-
kaotarrak irudi-
katzen gaitu eta

euskararen aldarrikapena eginez antzarrak zabaltzen
duen mezuak, testuak, zera dio: 'Mintza hadi Geurean'.

Goiherriko Euskal Eskolak antolatutako eranskailu
lehiaketa honetan, 80tik gora lan aurkeztu dira. Gehie-
nak lazkaotarrak, baina baita Goierriko beste herrieta-
koak ere.

Marian Bidegain, Pello Joxe Aranburu eta Maite
Mendizabalek osatutako epaimahaiak azpimarratu due-
nez, jendeak duen imajinazioa handia izan da, eta egin-
dako lana ere izugarria.

Josu Kondek 5.000 pezetako saria jaso du.

ALABE EKITAZIO ESKOLA
ASTEBUKAERAK ZALDIZ
TXANGO ANTOLATUAK
ZALDI OSTATUA
MA ETA ZALDI BIDAIAK
LAZKAOMENDI ☎ 88 42 60 - 908 67 68 73

MAPFRE
ASEGURU TALDEA

Festa onak pasa!
Pello Barandiaran
☎ 16 13 61
Hirigoien, 18
LAZKAO

GERRIKO
S. A.
liburudenda
✓ **Liburuak**
✓ **Jostailu didaktikoak**
✓ **Eskola materiala**
✓ **Bulego materiala**
✓ **Fax zerbitzua**
Elosegi, 16 ☎ 88 65 00 - Faxa: 88 79 71 **LAZKAO**

ARTANO
Arrandegia

Festa onak pasa!!!
☎ 88 24 44
Ubaitz, 2 **LAZKAO**

Ana Belén
ILEAPAINDEGIA
☎ 88 26 31
Gurutze, 2 **LAZKAO**

GARMENDIA ERAIKUNTZAK
▲▲▲▲▲▲▲▲▲▲▲▲▲▲▲▲
TEILEN BIRGAITZE, MANTENIMENDU ETA MUNTAIA
☎ 69 35 49 - 989 65 34 52 **Albitxu - LAZKAOMENDI**

IDIAZABAL

Emakumeentzat hitzaldiak

Udaleko Gizarte Ongizate-batzordeak eta gizarte laguntzaileak emakumeari zuzendutako hitzaldi sorta antolatu dute maiatzarako. Herriko emakume talde batekin harremanetan jarri eta hitzaldi horiek egiteko interesa zegoela ikusita antolatu dira.

Maiatzeko astelehenetan izango dira hitzaldiak arratsaldeko hiruretan Kultur Etxean. Hizlaria Pilar Armendariz psikologoa izango da eta ondoko gaiak landuko ditu:

- **Maiatzaren 5ean:** 'Seme-alabak adoleszenteen arazoak'.
- **Maiatzaren 12an:** 'Eta zuk emakumea, nola balaratzen duzu zeure burua?'.
- **Maiatzaren 19an:** 'Etxekoandarearen sindromea'.
- **Maiatzaren 26an:** 'Depresioa'.

Autobusen ordutegia

Uztailaren 1ean hasiko da martxan Goierrialdea S.A. autobus konpainia berria. Autobus zerbitzu berriaren ordutegia zehaztu dute dagoeneko. Idiazabaldik abiatuko diren autobusen ordutegia ondokoa da: astelehe-

netik ostiralera, goizeko 7.00etan hasi eta gaueko 10.00ak arte, orduoro aterako da autobus bat herritik. Asteazkenetan gainera, goizeko 7.30etan eta 8.30etan ere izango da autobusa.

Larunbatetan goizeko 9.30etan eta 11.30etan,

eguerdian 1.30etan, arratsaldean 16.30etan eta 18.30etan eta gauean 9.30etan. Igandeko eta jaiegunetako ordutegia larunbateko bera izango da, salbuespen bakarrarekin: 1.30etako autobusik ez da izango igandetan.



Tranpatan

Merkatuan da dagoeneko Joseba Iparragirreren lehen diskoa. 'Tranpatan' izena du bildumak, eta guztira 12 kantu biltzen ditu. IZ disketxean grabatu du diskoa Josebak. Erromeri eta beste emaldietan lagun izaten dituen Ander Sanjose, Aitor Atxega eta Iker Telle-

riak ere hartu dute parte disko honetan. Horiekin batera laguntzaile bereziak ere izan ditu ordea, tartean Mixel Ducau eta Karlos Gimenez.

Bilduman dauden 12 kantuetatik bitan Josebak berak kantatzen du, eta bi instrumentalak dira (fandangoa eta arin-arina). Abestiak Joseba Iparragirrek egindakoak dira eta ekoizpen musikala, berriz, Txema Garcesek egiten du.

Gazte Asanblada

Gazte Asanblada uda aldera begira jarri da dagoeneko, eta Sanjuanetan egin ohi duen ekitaldia prestatzen hasteko asmoa du. Horretarako herriko gazteei parte hartzeko deia egiten die eta bilerak hasiko direla jakinarazi dute.

Audiobisuala

Maiatzaren 8an, Koke Lasaren 'Mendizerra zuria' ikusentzutekoa emango da arratsaldeko 8.00etan Kultur Etxean.

Xabier Urteaga

GABIRIA

Xabier Sukia irabazle bertso txapelketan

Joan zen larunbatean, apirilak 19, jokatu zen Osinalde elkartean XXVI. Bertsolari Gazteen Txapelketa eta bertan sei bertsolarik hartu zuten parte. Saioa beste urteetako baino kaxkarragoa izan zen; gaztetasuna eta urduritasunaren ondorioz bertsoak ondo gozatu gabeak izan ziren, zenbaitetan joskera aldetik eta egitura aldetik trakets xamarak eta nola-halako mailari hasieratik bukaerara arte eutsi ziotenak Xabier Sukia, Ibon Karrera eta Eñaut Agirre izan ziren eta, ondorioz, hiru horien artean aukeratu behar txapelduna.

Saio guztiko bertsorik onenak, nire ustez, Xabier Sukiak eta Ibon Karrera zortziko txikian botatakoak izan ziren eta beharbada horietan lortutako puntuazioari esker irabazi ahal izan zituzten lehenengo eta bigarren sariak; izan ere, hasieratik bukaerara arte mailari gora-behera handirik gabe ongien eutsi ziona, hau da, erregularrena, nire ustez, Eñaut Agirre izan baitzen.

Azkena aipatutako bertsolari horri, hau da, Eñaut Agirreri eman zioten epaimahaikoek bertsorik onenaren saria, hain zuzen ere,

puntua jarrita botatako bertsuengatik.

Aurtengoa horrela joan zaigu eta ea datorren urtean saio borobilagoa ikusteko eta gozatzeko aukera izaten dugun.



Nekane Agirre irabazle

Aurten antolatu da lehenengo aldiz argazki lehiaketa herrian eta bertan hemezortzi lagunek aurkeztu dituzte beren argazkiak. Horietatik, epaimahaikoen iritziz Nekane Agirrek aurkeztutakoa izan zen onena eta ondorioz berearentzat izan zen lehenengo saria. Bigarrena Idoia Arzelusentzat eta hirugarrena Jesus Gorrotxategirentzat.

Gabino Murua

SEGURA

Beheko barriokoen eguna



Iazko Santa Kruz egunean, auzotarrak mokadutxo bat eginez meza ondorengo tertulian.

Zapatuan, maiatzaren 3an ospatuko dute Santa Kruz eguna, bolalekutik beherakoe. Beheko Kurutzan 19:00etan izango den auzoan hildakoen aldeko mezaren ondoren, Udalararen laguntzaz, mokadutxo eskainiko da. 21:00etan, Madalenen prestatutako afaria izango da Guraso Elkartean. Izenak, aurrez, Antonkalenen edo Jermanenen eman behar dira.

Txirrindulari proba

Jaietan, maiatzaren 4an, Segurako Txirrindulari Elkartek antolatuta, Jabier Ormazabalaren oroimenez, jubenil mailako XXIII. Gurutze deunaren proba izango da. Goizeko 9:30etan irtenda, 96 Km egin ondoren, 11:55 aldera bukatuko da. Txirrindulariek, helmuga baino 4 Km. lehenago, Liernia igo behar dute Ormaiztegi aldetik. Guztira, 120 txirrindulari inguru espero dira, horien artean, Alex Rekondo herritarra. Sari banaketan ondoren, toka saioa izango da Jermanene aurrean eta animazioa Antonkalene tabernan.

San Juanak

Apirilaren 14an egin zen Udaletxean, San Juan festak antolatzeke 1go bilera. Jai egunak, 21, 22, 23, 24 eta 25 izatea eta festetako programarako argazki lehiaketa an-

tolatzea erabaki zen. 2. bilera datorren astean izango da.

Argazki lehiaketa

Gaia: San Juanak eta herriko panoramikak. Bertan, edozein segurarrek parte har dezake. Argazkiak, 30 x 40 neurrikoak eta koloredunak, 4 gehienez, maiatzaren 12rako aurkeztu behar dira Udaletxera. Bakoitzari, izenburua jarri behar zaio atzekaldean eta sobre itxi batean norberaren datuak eta argazkiaren izenburua. Saritutako argazki bakoitzeko 8.000 pezeta emango dira eta aurkeztutako bakoitzeko 800. Udalak aukeratutako epaimahaiak, San Ixidro eguneko



gasti baserriko baratzean. 3 urteko zainketa bereziaren ondoren, 1994ko martxoan jaso zituzten lehenengoak. Abenduan adarrak moztuta, urtero, martxoaren erdi aldera hasi eta ekainaren erdi aldera arte, egun biz behin edo, platerkada esparrago ateratzen dute beren kontsumorako edota familiakoei eta lagunei emateko. Argazkian Agustin Legorburu esparrago bat ateratzen.

afarian, maiatzaren 15ean, emango du erabakia eta argazki guztiak erakusgai jarriko dira plazan.

Futbola

Asteburuko emaitzak: Infantilak: Aizkorri 0-2 Real Union. Kadeteak: Tolosa 3-1 Aizkorri. Jubenilak: Segura 4-2 Ilintxa. Errejonalak: Segura 2-2 Aloña Mendi.

Asteburuan etxean: Kadeteak: Aizkorri - Idiazabal, zapatuan, 16:00etan.

Labur labur

● Apirilaren 10eko, pleno berezian, HB eta EAJren botoekin, **Karmentxu Etxeberria** EAKo alkatesari, orain arte izan duen egun erdiko soldata ez onartzea erabaki zen.

● Apirilaren 13an izandako batzarrean, **jubilatuak elkarteko batzordea** osatu zen. Tere Anduezak eta Inazio Lezetak utzi egin dute. Hauen orde, Inazio Ugalde eta oraindik zehaztu gabeko beste bat sartuko dira. Gainerakoan, lehendakari Patxi Garaialdek jarraituko du, lehendakariorde Xabin Alda-

nondok, Joxe Mari Auzmendik diruzain, eta Manuel Huertak idazkari. Gainerako batzordekideak, Anttoni Aldanondo eta Joakin Izagirre dira.

● Atsedeneke azken tute, puntu eta museko irabazleek eta iazko San Juanetan tokan eta igel-tokan txapeldun geratutakoek, apirilaren 24an jokatu zuten Beasaingo jubilatuen etxean **eskualdeko txapelketa**.

● Lazkaoko festak aprobe-txatuz, 1958, 59, 60, 61, 62, 63, 64 eta 66an jaiotakoek, urteroko **kinto afaria** izango dute apirilaren 26an.

● Kirol eskolarraren barne, maiatzaren 4an jaunartzeak direla eta, Aizkorriara egin beharreko irtetara, astebete aurreratu da. **Mendi irtetara**, apirilaren 27an izango da, 8:30etan plazatik irtenda.

● **Gipuzkoako bola txapelketa** bukatzeko 4 jardunaldi besterik falta ez denean, Xepiño Agirre aldea handituz doa. Azken jardunaldiaren ondoren, 5 brillako aldea daramakio 2.sailkatuari.

● Maiatzaren 1ean 50 urte egingo ditu **30 zm inguruko elurra** egin zuela Seguran eta inguruko herrietan.

● Maiatzaren 4an, eguerdiko 12:00etan, Andre Mari Jasokundearen elizan, Maitane Urkiolak, Hugo Alejandro, Manu Errezolak, Joanes Imazek, Ane Arrietak, Gorka Mansok eta Eneko Montesek, **lehenengo jaunartzea** egingo dute.

● Maiatzaren 11n izango den **Herri Urratserako** autobusa antolatuko dute Elorri Kultur Elkartekoek. Autobus txartelak, Elorripen jarriko dira salgai.

Joseba Telleria

ORDIZIA

Joaneko larunbat gauean istiluak izan genituen herriko kaleetan. Ordubata t'erdia aldera aurpegia tapaturik zeramaten 20ren bat lagunek herri-guneko kaleak zeharkatu zituzten. Kontenedoreak lurreratu eta erre zituzten, udaletxea, Kutxa, Mapfre, Euskadiko Kutxa, Batzokia eta EBren egoitza erasotu zituzten eta azkenik Aldundi-ko kotxe bat erre zuten. Guztia 10 minuturen barruan. Ondoren Ertzainen despliega etorri zen. Bi ertzaina eta herritar bat zaurituak gertatu ziren gazteen eta ertzainen arteko enfrentamenduaren ondorioz.

EAK HBren inguruari ardurak eskatu zizkion. IUEBak "kristal apurtuen gaua" bezala izendatu du

apirilaren 19koa. Euskal Herrian faszismoaren berpizkundearen aurrean gaudela gaineratu zuen, ENAMaren babesarekin. PSE-EEk eraso hauek "razzia abertzale" bezala kalifikatu ditu. PPK azkenik, euskal gizarteak "metodo faszista eta totalitario hauek" gaitzesten dituela esan du.

Istripua

Apirilaren 18an San Juan auzoan autobus batek bertako tunelaren gaina jo zuen autobilara sartu nahi zuenean. Ondorioz 10 lagunek garrantzi handirik gabeko zauriak jasan zituzten. Garraio-bide handiek, eta altuek batez ere, zailtasun handiak izaten dituzte, bai San Juanen eta baita San Bartolo-

men dauden tunelen altuera bajua dela eta.

Futbol txapelketa

XVIII Lagunarteko Futbol Txapelketak 10. ihardunaldia bete berri duenean, honela daude multzo bietako sailkapenak: "A" multzoan Tximista Sagardotegia eta Morapios daude lehen postuan 11 punturekin berdinduta, ondoren E.R.Matxain Ileapaindegia doa 9rekin eta laugarrena Olano Taberna 8 punturekin. Boskarrengoan Badago taldea dago 5 punturekin, gero Usunbilla, Peña Azotea eta Bustunmira 2rekin eta multzo honetako azkena Sylum da, oraindik punturik lortu gabe.

"B" multzoan, berriz, Urbitarte Sagardotegia, Wiskas

eta Txiki Taberna dira buru 9 punturekin, laugarren Loretos 7rekin, hurrena Vicuña Sport 6rekin, Txola Taberna 4rekin, Harrike eta OGT 2rekin berdinduta eta azkena Laostiajode 0 punturekin. Gogoratu lehen fasea amaitzean multzo bakoitzeko 4 lehenak sailkatuko direla hurrengorako eta hemen beste bi multzo egingo dira finalerdietara pasako direnak ligaska bitartez erabakiz. Finala uztailaren 6an jokatu da eta ondoren partaide guztien artean bazkari oparoa egingo da. Txapelketako goleatzailerik nagusiena Urbitarte Sagardotegiko Aitor Martinez de Olkoz da momentuz 12 golekin.

Aitor Calvillo

ZALDIBIA

Zaldibiko Kristatu Elkartek, "Zahar eta Gaixoen Eguna" egingo du maiatzaren 4an, parrokiari. Meza Nagusiak emango dio hasiera egunari. Meza barruan, Elizaren gomendioari jarraiki, Untzio Sakramentua emango zaie hala desio dutenei.

Elizako aldia egin ondoren, lagunarteko bazkaria Gaztelu Elkartean; bazkalondo umoretsua izan dadin, ez da faltako bertsolari, soinu, txiste, pailazo eta abarrik. Bazkaltzera etorri nahi duenak telefono hauetako batera deituta eman behar du izena: 887575, 888989 edota 160802. Bazkariaren prezioa: 2.000 pezeta. Apirilaren 30a baino lehen eman behar da izena.

Biztanlegoa zahartzen

Gero eta zahar gehiago dago

gure herrian. 313 lagun daude 65 urtez goikoak. 1.545 bizilagun dituela kontutan harturik, % 20,26 egiten du horrek. Gipuzkoako batz bestekoaren oso gaineratik dago Zaldibikoa, gure probintzian % 15,1 baizik ez baitira adin horretakoak. 60 eta 64 urte bitartekoak, berriz, 77 pertsona dira Zaldibian, hau da, populazioaren % 11,90.

Bestalde, bakarrik bizi dira 19 pertsona adineko; hauetatik 6 (2 gizonetako eta 4 emakumetako) baserrian. Kanean 13 zahar (2 gizon eta 11 emakumetako) bizi dira bakarrik. Udalak 4 langile ditu lan honetarako. Zerbitzua egun eta pertsonako 2 ordutako izaten da. Laguntza hau jasotzen duten 11 pertsona daude Zaldibian, guztira astean 72 ordu.

Zahar eta gaixoen eguna

Auzolana bultzatu nahian

"Auzolana eta ingurugiroaren ezagutza bizimoduaren alde bi baizik ez dira" adierazten du Udaletxetik iritsi zaigun txosten batek. Baina txostenean bertan adierazten denez, auzolanak atzerako handia egin du eta garrantzi gutxiko lan batzuk baizik ez dira burutzen auzolanean gaur egun. Ondorioz, zenbait bidezidor, iturri... sasiak hartu eta galtzen ari dira. Bestalde, herritarrek ez dituzte ezagutzen eta ez aintzat hartzen guztionak diren baso, iturri, bide, muga, etab. Dena dela, bada adibide bat: Zubiaurretik Mirandarako bidea pertsona batek zaintzen du. Galdera batekin segitzen du txostenak: "Olaldeko parkeko belarra moztea, putzuari txukun eustea, loreak zaintzea, bazte-

rrak garbitzea... ez al dira guztion artean egiteko moduko lanak?"

Herri arteko pilota txapelketa

Hilaren 18an eman zion hasiera Zaldibiak herri arteko pilota txapelketaren edizio berriari. Ondo hasi ere, 2 eta 1 irabazi baitzion Elgoibarri hasiera edo etxeko partiduan. Bueltako partidua gaur, apirilak 25, jokatu dute. Infantiletan, Aratz Mendizabal eta Ibon Gurrutxagak, 18 eta 1 irabazi zuten; jubeniletan, 22 eta 18 galdu zuten Gerizpe Iraola eta Aritz Eskisabelek; eta, azkenik, afizionatuetan, Aritz Jauregi eta Aitzon Sukia aise nagusitu ziren: 22-2.

Rufino Iraola

ZEGAMA

San Pedro edo Iruetxea eskola

1955eko urriaren lehen hartu zuen Udalak Goialdean Eskola berriak egiteko erabakia. Besteak beste 50 umetik gora bertan izatea izan zen arrazoietako bat eta horrezaz gain, neguko eguraldia zela eta, umeei kaleraino etortzeko ezintasuna. Garai horretako Aktan adierazten denez, Goialdeko haurrak San Pedro ermitan ematen zuten eskola eta Udalaren iritziz, Eskola bezala erabiltzen bazen ere ez zuen irakaskuntzarako gutxieneko baldintzarik betetzen.

Eskola egiteko aukoei lurra eskatu zitzaizen eta hiru baserrikoek eskaini zuten lurra: Hipolito Arrondo, Andres Alustiza eta Bernardo Berasategik. Azkenean Amiano Erdikoa Baserriaren lur zati bat aukeratu zuen arkitektoak Eskola hauek eraiki zitezen, lurrarengatik 37.000 pezeta ordaindu zirelarik.

Ura, berriz, Arakama Enea baserrikoak eman zuten, 1960ko azaroaren 11n, Arakama Enekoekin hitzarmen bat sinatu zuelarik Udalak Eskolarako ura izan zedin.



San Pedro eskolako ikasleen argazkia da, duela 77-78 urtekoa. Karmen Zabaleta Berasategik utzi digu argazkia eta jendea identifikatu duena, Joxe Alustiza da.

Goiko ilara: Justina Berasategi (*Lokatxa*), Jose Alustiza (*Arakama Enea*), Juan Arakama (*Amiña Barrena*), Leon Zabaleta (*Latxane*), Gabino Arrizabalaga (*Kaseta Osiñeta*), Isidro Azurmendi (*Egileor*), Eulalia Mazkieran (*Iruetxeta*), Zelestina Gorrotxategi (*Urzulaieta*) eta Bonifazia Zabaleta (*Altzukaran*).

Bigarren ilara: Martina Zabaleta (*Asemendi-Goena*), Juan Maria Inza (*Ollari*), Manuela Arrieta (*Gesaletxe*), Mercedes Berasategi (*Egurza*), Felisa Zabaleta (*Altzukaran*), Juana Zabaleta (*Buena Vista*), Felipa Arrizabalaga (*Artzalanea*) eta Maria Berasategi (*Amiña Erdikoa*).

Hirugarren ilara: Jazinto Otegi (*Telleri*), Bernardo Berasategi (*Amiano Erdikoa*), Jesus Gorrotxategi (*Urzulaieta*), Isidro Azurmendi (*Egileor*), Maria Mora (*Maistra*), Felipe Azurmendi (*Egileor*), Pakita Aseginolaza (*Zupietia*), Maria Zabaleta (*Altzukaran*), Manuela Arrizabalaga (*Artzalanea*), Sabino Alustiza (*Arakama Enea*), ezezaguna eta Manuela Azurmendi (*Zupitxota*).

Lurrean: Felipa Arrieta (*Osiñeta*), Gregoria Alustiza (*Egurza*), Francisco Alustiza (*Egurza*), Maria Alustiza (*Arakama Enea*), Tomasa Gorrotxategi (*Urzulaieta*) eta Juliana Arrizabalaga (*Kaseta Osiñeta*).

Auzotarrek ere dirua jarria zutela agertzen da Agiritegian.

1959an Zegaman zeuden eskolak: - 'Colegio de Colon de la RR del Amor de Dios de esta Villa'. 31 mutil eta 89 neska. - 'Escuela Unitaria de Niños'. 38 mutil eta 48 neska. - Otzaurte-

ko eskola. 8 mutil eta 2 neska. - San Pedro eskola. 15 mutil eta 12 neska.

Antzerkia

Euskararen eguna dela eta, apirilaren 30ean, antzerkia izango da Aitxuri Herri Eskolak antolatutik. Era berean, maiatzaren 2an ere, txotxongiloak izango dira

Eguerdiko 2:45etan hasiko dira saioak eta herriar guztiak gonbidatuak daude.

Santa Kruz saria

Apirilaren 26an, XIII. Santa Kruz saria jokatuko da, 2. kadeteentzat, goizeko 10.30etan.

Kirol albisteak

Apirilaren 12ko emaitzak:

Sokatira: Zegaman ospaturiko tiraldietan: Neska eta mutil alebinitan, Aitxuri 3.. **Futbito:** Neska alebinak: San Benito 6 - Aitxuri 1; mutil alebinak: Urdaneta 1 - Aitxuri 7; neska infantilak: Loizazpe/Zegama 3 - Alkartasuna Lizeoa 0. **Txirrindularitza:** Ordizian, Ruben Zabaletak 4. postua eskuratu zuen eta Oier Arkonada atzeraxeago.

Apirilaren 21eko emaitzak:

Krosa: Lazkaon, neska alebinitan Amaia Urbizuk 5. postua eskuratu zuen eta Iratxe Ormazabal, neska infantiletan, 5. geratu zen.

Datorren asteburuan **sokatiralariek** Azpeitiara joango dira 3. ihardunaldiari aurre egiteko.

Edurne Albizu

VICUNA Sport

Kale Nagusia, 11

88 93 17

ORDIZIA

ZABALE

OKINDEGIA

DIETETIKA

- Mediku akupuntorea
- Pisuaren kontrola
- Estetiziena

Santa Maria, 8 88 12 11

ORDIZIA

OLABERRIA

Iurreko jaietarako dena prest

Asteazkenean hasiko dira Iurre auzoko jaiak. 3 egunetan zehar herritarrek eta auzora gerturatu den jendeak hainbat ekitaldietan parte hartzeko aukera izango du. Urtero bezala, 'Asociacion Jose Maria Aristrain' elkar-teak jai hauek antolatzeko ardura hartu du bere gain.

Jai hauetan bi berrikuntza izango dira ikusgai. Batetik, areto futboleko txapelketaren finala jokatu da areto futbol zelai berrian eta bestetik, etxeko txikien bazkaria dohainik emango zaie. Bi ekitaldi hauek maiatzaren 3an izango dira. Jaiak ongi amaitzeko goizeko 3.00etan auzoko igerilekuan txokolate beroa dastatzeko aukera izango da. Egiraua:

● Apirilak 30, asteazkena:

19:00etan: Buruhandien iteera txistulariekin.

23:00etatik 3:00etara: Dantzaldia Araba taldearekin.

3:00etan: Txistorrada Poblado tabernan.

● Maiatzak 1, osteguna:

10:00etan: Txistulariekin goizeresia.

11:00etan: Meza Nagusia.

12:00etan: Incansables taldeak herria zeharkatuko du bere soinuarekin.

13:00etan: Incansables taldearen kontzertua.

16:30etan: Herri mailako mus txapelketa.

17:00etan: Haurrentzako jokoak.

19:00etan: Buruhandiak Incansables taldeak lagunduta.

20:30etan: Kalderete lehiaketako bilketa.

23:00etatik 1:00etara: Dantzaldia Incansables taldearekin.

● Maiatzak 3, larunbata:

10:30etan: Eskulanak.

11:00etan: Marrazki lehiaketa.

11:00etan: Herri mailako 1. go Futbito txapelketa.

12:00etan: Poteo herrikoia trikitrixarekin.

13:00etan: Pobladoak diren 14 urte bitarteko haurrentzako bazkaria.

17:00etan: Haurrentzako jokoak.

18:00etan: Herri mailako toka txapelketa.

19:00etan: Buruhandiak trikitrixaren laguntzaz.

19:00etatik 21:30etara: Dantzaldia Izarra taldearekin.

20:30etan: 18 urte bitarteko Tortila lehiaketa.

23:00etatik 3:00etara: Dantzaldia Izarra taldearekin.

1:00etan: Mozorro lehiaketa.

3:30etan: Igerilekuan Txokolate jana eta jaien amaiera.

Zaharren egoitzak 2 urte

Zaharren Egoitzak bi urte bete ditu apirilean eta hori ospatzeko pasa den apirila-

ren Sean luncha antolatu zuten. Bertara 100 bat bazkide gerturatu ziren. Ondoren hainbat egunetan antolatu diren joku ezberdinetako irabazleen sariak banatu zizkietan, Agustin Agirre alkateak eta Gizarte-zerbitzuko zinegotzia den Pruden Beaskoak. Hauek izan ziren irabazleak:

Tokan: Crescencio Lopez eta Mario Alvarez; **Dominon:** Jose Matias-Paulino Casado eta Pedro Carracedo-Francisco Aizkorbe bikotea; **Igel jokoan:** Santiago Apaolaza eta Crescencio Lopez; **Karta jokoan:** Juanita Santana-Valen Santana bikotea eta Tere Pascual-Ana Fernandez; **Musean:** Crescencio Lopez-Francisco Aizkorbe eta Julian Irazola-Antonio Ormaetxea; **Tutean:** Margari Arranz-Isabel Garcia eta Julian Irazola-Avelino Barbadillo.

Nagore Goiburu

LEGORRETA

● Mozorro eguna

Herri jaietarako mozorroak egitera zuzentzen dugun lana eta ilusioa ikusita, Udalak, herriko elkarte eta erakundeekin lankidetzan, mozorro lehiaketa arratsalde osora zabaltzea erabaki du. Era honetan, arratsaldetik hasita mozorrotu nahi duten legorretarrek hala egin ahal izango dute eta gauez bakarrik mozorrotzen jarraitu nahi dutenek aurreko urteetan bezala jarraitu ahal izango dute. Dena den, arratsaldez edo gauez ateratzen diren denak parte hartuko dute mozorro lehiaketan.

Mozorro lehiaketa arratsalde osora zabalduz giro hobea eta horiek prestatzen hainbeste lan egiten dutenek gehiago gozatu ahal izatea espero du Udalak eta herritar guztiak animatzen ditu mozorro lehiaketan arratsalde osoan parte hartzera.

● Play-Backa

Festetako ekitaldirik garrantzitsuenak badirudi partaide ugari izango duela. Jendea aspalditik ari da lanean buru-belarri eta ikuskizun polita eskainiko dutelakoan gaude. Aurreko urteetako arrakasta ikusirik,

Udalak Play-Backaren alde apustu garrantzitsua egitea erabaki du eta hobekuntza nabariak ikusteko paradan izango gara aurten. Azpimarratzekoa da beste behingoz Play-Backaren alde Pake egiten ari den lana. Izan ere, lehiaketa honen arrakasta berari zor baitzaio hein handi batean.

Bertsolariak

● Bilkoin elkartean

Elkarteak bertsogintzan programaren barruan bertsolari gazteak arituko dira, gaur, apirilak 25, Bilkoin elkartean, gaueko 9.30etatik aurrera. Afaria izango da

aurretik. Bertsolariak berri, hauek: J.R.Gerriko, A.Jimenez eta A.Agirre. Guztia 1.500 pezetaren truke.

● Herri Zineman

Maiatzaren 3an izango da Udalak antolaturiko urteroko bertso jaialdia. Bertsolariak: Aitor Mendiluze, Angel Mari Peñagarikano, Xabier Euzkitze, Xabier Zeberio, Joxe Agirre eta Millan Telleria. Gai-jartzailea: Joxe Mari Agirre 'Txato'. Gaueko 10.30etan hasiko da saioa.

Josune Amondarain

BEASAIN

Elkarteen arteko dinamika sortu nahi da

Herriko Elkartearen artean harremana, dinamika bat sortzea eta herritarrei eza-gutzero ematea dira 'Loinatz 97'ren barruan sortu den ekimen honen helburuak.

Usurbe Antzokian erakusketa izango da. Elkarte bakoitzaren ezaugarri diren hainbat elementu erakutsiko dira. Elkarte bakoitzaren bandera, argazki zaharrak, elkartearen sortzaile izan ziren bazkideen zerrendak... Elkarteak herritarrei erakutsi nahi zaizkie. Elkartearen sorreraren berri ere emango da, labur bada ere. Gaur, apirilak 25 inauguratuko da, eta maiatzaren 4rarte egongo da zabalik.

Gainerako ekintzak, igandean, apirilak 27 hasiko dira. Aitz Zorrotz ehiz eta arrantza elkarteak antolatutarik, galgo-txakurren erakustaldia izango da, 11.00etan, Itola baserriko zelaletan (Hormigonera Goierri atzean).

Hilaren 28an, arratsaldeko 7.00etan, Murumendi Pelotazale elkartearen pelotari buruzko hitzaldi-merienda izango da. 'Atzoko eta gaurko pelota' gaia aztertuko dute. Josetxo Lizartza izango da moderatzailea. Hizlariak Salbador Bergara, Martin Alustiza, Oskar Lasa, Juan Ramon Mendia beasaingarria izango dira. Lehengo beasaingar pelotariaren bat ere bertan izatea nahi dute antolatzaileek.

Hilaren 29an, sukaldaritza ikastaroa hasiko da. 6 asteartetan segidan, elkarte ezberdinetako sukaldariak emango dute. Aizkorri Mendizale elkartearen izango da eta herritarrei zuzendua



dago. Mugatua izango da ikastaroa, 15 lagunentzat.

Maiatzaren 3an, Igo Elkartearen arteko mus txapelketa Arranak antolatuko du. Urtetik urtera txandakatu joango da antolaketa lana. Elkarte bakoitzetik bina bikotek hartuko dute parte.

Maiatzaren 2an, Beti-Bizi elkartearen, Arabar Errioxako ardoaren dastaketa izango da. Lehenengo aldia da Beasainen ardo dastaketa egiten dela. "Ez dago dastaketa kulturarik. Nik uste nuen dastaketetan ardo asko edaten zela, baina ez omen da edaten", adierazi du Jon Lizarralde antolatzaileetarikoa batek. Klase teorikoa lehenengo, eta klase praktikoa egingo dute ondoren.

Lizarralde azpimarratu digunez, aurrera begira ere, urtero horrelako asteren bat antolatzea da helburua.

'Dantza berriak, doinu berriei jarriak'

Aurtzaka Dantza-taldeak 'Dantza berriak, doinu berriei jarriak' ikuskizuna berriro taularatuko du Usurbe Antzokian. Maiatzaren 2an izango da eta bi saio eskainiko dira: arratsaldeko 8etan eta gaueko 10.30etan.

Ikuskizun honen estrainaldian izan zuten arrakasta ikusirik, eta hainbat jende kanpoan gelditu izanak bultzatu dituzte berriro ere ikuskizuna eskaintzera. Antzerki Garaiairen barruan eskainiko da, eta beraz, programa horretako abonoak balioko du. Besteek 700 pezeta ordaindu beharko dituzte. Sarrerak salgai daude jadanik, Usurbe Antzokian bertan.

VI. Doinu zahar txapelketa

Apirilaren 26-27an jokatuko da Euskadiko Doinu Zahar txapelketa. Seigarren urtez ospatzen da Beasainen eta aurrekoetan bezala, bi ataletan banatuko da txapelketa: lehena larunbatean izango den kanporaketa eta igandean kanporaketan aurrera egindakoen arteko txapelketa izango da. Bi ataletan egitearen arrazoiak, partaide kopuru altua da.

Erakusleihen lehiaketa

Aurtengoan aldaketa bat izango da Loinatz jaietako dendetako erakusleihen lehiaketan: herritarrek emango dute saria, Segura Irratiaren bitartez.

Maiatzaren 9 eta 18an,

hau da Loinatz jaietan, herriko denda ezberdinek bere apainketa egingo dute eta epaia edonork eman dezke Segura Irratiko 'Erakusleihen lehiaketa' irratsaioaren bidez. Maiatzaren 14, 15 eta 16an, eguerdiko 12.30etatik 13.00etara izango da irratsaioa eta epaia emateko 801014 eta 80137 telefonoetara dei daiteke. Epaile guztien artean, 8.000 pezetako erosketa bale pare bat zozketatuko dira. Lehiaketaren partaide guztietatik, irabazle bakar bat egongo da, boto gehien jasotzen dituen alegia, eta saria maiatzaren 18an emango zaio Bareak elkartearen.

Euskarazko erroto-luei subentzioak

Aurreko urteetako politika-ekin jarraituz, erroto-luei euskara hutsez jartzen dituzten merkataria, industria, denda eta gainerakoei kostuaren % 30eko laguntza emango zaie 30.000 pezetara arte. Erroto-luei euskaraz ongi idatzita egon behar du (aurrez pasa badaezpada Euskara-zerbitzutik) eta izen hutsa baino zerbait gehiago duena izan behar du. Interesatuok jo Euskara-zerbitzura (88 75 12 telefonoa).

Abizenak euskal grafiaz

Abizenak edo deiturak ofizialki euskarazko ortografiaz idaztea gomendatzen zaie herritarrei. Horretarako, behar diren agiri guztiak prestatzen laguntzen du Euskara-zerbitzuak. Zehaztasunak Udaleko Euskara-zerbitzuan emango zaizkizue.

Izaskun Salazar
L.A.

ATAUN

Garapen plana (I): etorkizunerko irudia

Martxoaren 26ko plenoan onartua izan ondoren, gure herriaren etorkizuna idatziz jasotzen duen garapen planaren berri emateko asmoz, alkatearengana jo dugu, eta hitz aspertualditxo bat izan dugu, plan honen gorabehera buruz.

Onartu berri den plan hau prozesu sakon eta landu baiten emaitza da. Aurreko legegintzaldian somatutako behar bat asetzeko burutu da: udalak eguneroko arazo-erantzuteaz gain, etorkizuneko ikuspegi batekin lan egiteko daukan beharra, hain zuzen. Nondik nora jo nahi da edo nahi dugu? Gero, zentzu horretan lan egitearren udalgintzan.

Plan hau burutzeko orduan, kanpoko aditu batzuren laguntza jaso izan bada ere, aipatzekoa da guztiaren gainetik herritarren partaidetza: izan ere, 1995eko udazkenean egin zen deialdiari erantzunez, gutxi gorabehera 40 pertsonako talde bat biltzea lortu baitzen. Talde honetan gainera adin, auzo, ikasketa maila, eremu... ezberdinetako herritarrak elkartu ziren.

Prozesuak 3 fase ezberdin izan ditu:

Hasteko, parte hartu nahian izena eman zuten herritar horiek 3 lan taldetan banatu ziren, herriko gabeziei buruz aritzeko.

Hurrengo bilera batetan, berriz, jende hori bera herrian zer egitea gustatuko litzaioken erabaki nahian jardun zen.

Azken fasean talde txiki bat aritu zen lanean, egitekoa zein zen ikusita, proposena hori zelakoan: alkatea, idazkaria, udaletxeko batzorde bakoitzeko zinegotzi arduraduna, alderdi politikoen ordezkariak eta zenbait gaietan, kanpoko aditu batzuk izan ziren partaideak. Hauen egitekoa: aurreko bi fasetan herritarrek aipatu izandako helburu orokorrak egitasmo edo ekintza konkretuetan zehaztea. Horren guztiaren emaitza da, hain justu, orain onartu berri den plan hau: Ataungo udalgintzaren ardatz izateko asmoz burutua, baina sortzen joan daitezkeen gogo, ideia eta behar berriei irekia dagoena beti ere.

4 ardatz edo eremu nagusi aukeratzen ditu plan honek, gero eremu bakoitza sakon lantzeko:

- Bizimodua hobetu eta herria berritu.
- Kultura, aisialdia eta turismoa bultzatu.
- Nekazaritza-sektorea indartu.
- Industria erakarri eta parke "eko-teknologikoa".

Era berean, eremu horietan denetan herritar guztion partaidetzak duen ezinbesteko garrantzia ere aipatzen da plan honetan. Ardatz horiei buruzko berri zehatzagoak hurrengo baterako utziko ditugu.

Udala intsumiso

Udalak ejerzitoarekin ez kolaboratzeko erabakia hartu zuen bere garaian eta orain erabaki horren ondorioak jasan behar: batetik, oraingo alkatea, Aitor Auzmendi, Tolosako epaitegia izan berri da auzi hau dela eta deklaritzen (udalak hartutako erabakiari eutsiz). Horrenbestez, epaitua izango delako ustea dauka alkateak berak. Bestalde, aurreko alkatea, Sagrario Eskisabel,

epaiketaren zain dago dagoeneko: hau maiatzaren 14ean izango baita Donostiako epaitegia.

Labur labur

● Ospatu berri da **atletismoko Gipuzkoako txapelketaren** lehen jardunaldia kadete mailan eta horrenbestez, herritar batzuren lana aipatzekoa da: Jokin Goikoe-txeak 600 m.tan urrezko domina lortu baitu eta brontzezkoa 4x100 erreleboko proban. Ainara Gorostizu, berriz, 100 m.tako finalerako klasifikatu da.

● Apirilaren 25ean, ostirala, arratsaldeko 7etan, **Jesus Mari Mujikak hitzaldi bat** emango du "baloreak eta heziketa" gaiaren inguruan. Hitzaldia Joxemiel Barandiaran eskolan izango da.

● **Sarako korporazioaren bisita** jasoko dugu ataundarrok apirilaren 26ean, larunbatez. Bisita honekin, Joxemiel Barandiaranen erbestea bere latzean goxoagoa izan zedin saiatu zen herri honetik harremanak estutzea lortu nahi du Udalak.

Josune Aldabe

"Eguneroko ogia, ogi bereziak eta pastel ezin hobeak"



K. Nagusia 35 Elozegi, 14 Sta. Maria, 19
 ☎ 88 77 58 ☎ 88 72 79 ☎ 16 00 44
 BEASAIN LAZKAO ORDIZIA

URBITARTE
sagardotegia



- Maiatzean ere txotxetik irekita
- Sagardotegiko menuaz aparte arraina ere egongo da
- Berezitasuna txuleta eta sahieskietan

Erreserba telefonoa: 18 01 19
 Ergoiena Auzoa **ATAUN**

UNTXUNDEI
garajea

OSINALDE
karrozategia

☎ 88 28 21 - 16 07 06
ORMAIZTEGI

Pako Aiestaran, Osasunako prestatzaile fisikoa

Beasaindarra da, 34 urte ditu eta Osasuna futbol taldeko prestatzaile fisikoa da. Horrezaz gain, futbol federakuntzako entrenatzaileen irakasle, hainbat txirrindulari afizionatuen eta Amaia Intxausti korrikalariaren entrenatzaile da.

- Zein da zure lana?

- Rafa Benitezekin hasi nintzenean, prestakuntza fisikoaren ardura izango zuen pertsona bat nahi zuen, eta aldi berean, desplazamendu guztietara joatea nahi zuen eta entrenatzaile ere banaienez, aholkuak eta aportunak ematea. Zabalza etorri zenean lana aldatu egin zen. Bere izateko era ezberdina zen, hau itxiagoa zen, beste ikuspuntu bat zuen prestatzaile fisikoarena. Lehenengo, bigarren eta jubenil mailako futbol taldeen prestakuntza fisikoaren ardura nik daukat.

- Zein da prestatzaile fisikoaren lana?

- Planifikazioa prestatu, jarrapena egin, asteko kargaren balorazioa egin, jokalarien testak pasatu...


Orain dela 2 hamarkada ia ez zegoen prestatzaile fisikorik futboleant. Futbolari lanaren bidez sortzen zen prestakuntza. Erreala Ligako txapeldun izan zen inguru hartan, hasi ziren sortzen prestatzaile fisikoak. Baina gehienak atletismotik etorritakoak ziren. Atletismoko bitartekoak edo entrenamendu metodoak futboleant planteatzen zi-

ren, baina ez zuten lotura handiegirik futbolarekin. Lan asko egiten zen baloirik gabe, serie asko egiten ziren. Jokalari baten prestakuntzaren emaitza ez da baloirik gabe egindako entrenamendua bakarrik, teknika lantzen ari denean, fisiko arloa ere landu egiten da. Hortik aurrera hasi ginen aztertzen, baloiarekin egiten genuen entrenamendurekin zer gertatzen zen. Zein erresistentzia mota lantzen zen, ze puntutaraino bihotz taupadak igotzen ziren ala ez... Jokalari baten aldaketak, alde batetik, baloirik gabe egiten den lanaren ondorioa dira, baina baita ere, baloiarekin egindakoarena.

Geroz eta garrantzia handiagoa du prestatzaile fisikoak, entrenatzaileak egiten duen lanari erantzuna ematen diolako, zergatia aurkitzen dio. Lehen uste zen prestaketa fisikoa alde batetik joan behar zela, eta entrenatzailearen lana bestaldek. Bitarteko integratuak sortzen ari gara piskanaka: entrenamendu sistematan, baloia, fisiko eta taktika lantzea.

- Futbolari baten prestakuntza fisikoan zerk du garrantzia?

- Gauza askok. Alde batetik, bere kapazitate aerobikoa oso garrantzitsua da. Partiduak 90 minutu dauzka eta jokalaria denbora guzti horretan, esfortzu ezberdinak egiteko gai izan behar da. Bestetik, indar maila geroz eta garrantzitsuagoa da, azken metroetan indarra edukitzea. Talde baten emaitza baldintzatzen duten ekintzak, ekintza es-



plosiboak dira. Baina aldi berean oso garrantzitsua da, akzio horiek askotan errepikatzea eta ondo errekupe ratzea. Orain dela urte batzuk esaten zen, lehenengo atleta on bat izan behar zela, eta gero futbolaria sortu. Futbolariak oso ezaugarri konkretuak izan behar ditu eta askotan ez dauka zerikusirik atleta batekin.

- Nola lantzen du hori futbolari profesionalak?

- Ni konturatzen ari naiz jokalariek ez direla gai beraien profesionaltasuna ondo eramateko. Nahiko txaskoa eraman izan dut horrekin. Futboleant mugitzen den diru kopuruarekin eta dagoen profesionaltasunarekin, jokalariek ez dira behar den neurrian profesionalak. Oso zaila da Padillak lortu duen profesionaltasun hori zenbait taldetan lortzea.

- Zein puntutaraino da garrantzitsua prestakuntza fisikoa?

- Prestakuntza fisikoa ona baldin bada, baldintza gehiago dauzkazu emaitza hobek lortzeko. Baina askotan ez da erlazio zuzena. Zenbaitetan prestakuntza fisikoa oso ona eta emaitzak

ez dira batere onak. Nahiz eta fisikoki ondo egon, baloiaren kontrola gaizki egiten bada, alperrik da. Psikologikoki ere ez badaude ondo prestatuta, alperrik da. Osasun hori gertatzen da aurten. Batez ere, Tajonarren azken 3-4 urteetan baino erresistentzia hobea daukate jokalariek, baina emaitzak txarrak dira. Jokalarien maila oso garrantzitsua da. Inportanteena jokalaria da, eta jokalaria hori fisikoki ondo prestatua bada, orduan hobeto. Taktikak garrantzia du. Askotan talde bat zelaian gaizki kokatuta badago, ematen du fisikoki gaizki prestatuta dagoela desplazamendu luzeagoak egin behar baitira. Faktore asko daude eta prestakuntza fisikoa faktoreetako bat da.

- Osasun zerk huts egin du?

- Alde batetik, plantila sortzerakoan ez zen asmatu. Diru kopuru gehiegi inbertitu gabe osatu nahi izan zuten plantila. Orduan hasieran fitxatu nahi izan ziren jokalariek Salamancan edo Meridan jokatzen ari dira, goran dauden taldeetan. Horren ondoren, taldearen maila nahiz eta okerragoa izan, entrenatzaile on bat



Kirol bide luze

Futbol jokalaria bezala, Beasainen, jubiletan Errealean eta gero berriro Beasainen ibili nintzen. Futbolean nentzilean, beti eduki izan nuen jendea entrenatzeko gogoia. Lehenengo atletismoko monitore kurtsoa egiten hasi nintzen. INEFaren berri ere banuen. Madrilen

ikasten zen. Goierri bukatuta Institutuan UBI egin eta Madrilen hasi nintzen. Lehenengo maila egin ondoren, Goierri klaseak ematen hasi nintzen. Biak batera, emateko aukera zegoen eta horrela atera nuen lizentziatura.

Galarreta, Turrientes... lagunek Beasain futbol taldean jokatzen zuten, eta nahiko denboraldi kaskarra egiten ari ziren. Entrenatzaile postua eskaini zidaten. Errejonial mailako entrenatzaile titulua aterata neukanez, entrenatzen hasi nintzen. Nahiko denboraldi polita atera zitzaigun.

Hurrengo urtean futbol eta atletismoko entrenadore nazionalaren tituluak ateratzen hasi nintzen. Ondoren, 3. mailako Tolosa taldea entrenatzen hasi nintzen. Orduan sortu zen Madrilen, Goi Errendimenduaren 2. urteko masterra. Aurretik ere klaseak ematen hasita nengoen Futbol Federakuntzan, entrenamenduaren teoria gaia. Entrenatzaile nazionalen kurtsoa antolatzen, Zamora, Zubillaga... futbolista ohiak joaten ziren. Zubillagak Osasunarekin fitxatu zuen idazkari tekniko bezala. Eta ni proposatu ninduen entrenatzaile fisiko. Profesional mailako lehenengo urtea aurtengoa da.

fitxatzearen apustua egin zuen Osasunak. Futbolean 3 aukera daude: jokalaria onak izan, nahiz entrenatzailea ez eduki, emaitza onak lortzeko gai direnak, Barcelona adibidez; beste aukera bat, nahiz eta jokalaria onak ez

eduki entrenatzaile batek jakin izatea etekinak lortzen, antolakuntza edo prestakuntza bidez; eta ez izatea ez entrenatzaile eta ez jokalaririk. Osasunak hasieran entrenatzaile ona zeukan, nahiz eta jokalarien maila

ez izan bigarren mailako onena. Baina ez zuten pazientziarik eduki, 9. jardunaldian bota egin zuten eta nik uste dut bat baino gehiago konturatu dela. Hortik aurrera, hala moduz joan gara. Zabalza ekarri zuten, konfidantza eman zien jokalaria batzuri eta hauek ez zuten erantzun. Giroa ere ez da batere egokia, batez ere komunikabide aldetik, direktibarekin ez dira ondo konpontzen. Emaitzak txarrak diren neurrian, komunikabideen presioa handitu egin da. Eta horrek eragin handia izan du taldearengan. Taldeak presio handia dauka eta jokalariek daukaten baino maila bajuagoa ematen ari dira.

- Zein da zure helburu pertsonala?

- Momentuz ez naiz ikusten entrenatzaile lanean, nahiz eta titulua eduki. Entrenatzaile batek ezaugarri oso bereziak izan behar ditu, batez ere karakterra. Alde teknikoak baino garrantzia gehiago dauka, taldeko giroa kontrolatzeko, prentsa kontrolatzeko... Ez da ezaugarri garrantzitsuena ondo prestatuta egotea. Ni mo-

mentu honetan ez naiz prestatua ikusten, nahiz eta teknikoki agian bai.

Prestatzaile fisiko bat beti bigarren maila batean dago, nahiz eta lana oso garrantzitsua izan, ez dago hainbesteko presiorik. Prestatzaile bezala nire ametsa da Lehenengo mailako talde batera iristea, politena Errealean izango litzateke. Beste helburua, prestatzaile lanean hobetzen joatea da, ikasten joatea.

- Zer moduz txirrindulariekin?

- Duela 3 urte hasi nintzen. Oso lan polita da, etekinak ikusi egiten baitira. Igor Floresek esaterako, afizionatuetatik profesionaletara pasatu zenean, nirekin entrenatu zuen. Txirrindularitzan azkarregi lortzen dira emaitzak eta zenbait txirrindulari ez dira iristen beraien balore onenetara behar den garaian. Askotan entrenamendu kopurua handiegia izaten da gaztetan. Bakoi-tzari dagokion entrenamendu kopurua planifikatzea da gure asmoa eta emaitza onak lortzen ari gara.

M. Albisu - L. Agirre

ZALBIDE SAGARDOTEGIA

Txitxarro eta sardinak
parrilan



65 21 76

ABALTZISKETA

ANDRA MARI TABERNA

Jaietako kuadrilentzat menu bereziak

- Eguneroko menua
- Asteburuko menu bereziak
- Karta

100 pertsonentzat jantokia
'Zuk prezioa jarri eta guk menua'

ANDRA MARI, 5 88 69 13 BEASAIN

GOIERRITARRA



88 96 12

NATUR HOUSE

DIETETIKA eta BELARDENDA

PISU KONTROLA
"PESO PERFECTO"

Urdaneta, 54 16 02 29 ORDIZIA

Txartel honen truke kontsulta bat dohainik



GOITGI OKINDEGIA

Ogigintzan onenak!

Etkezarreta z/g
ORDIZIA 160501

- ◆ Egurrezko labeen egindako ogi gozoa
- ◆ Opil finak
- ◆ Eguneroko ogia
- ◆ Ogi bereziak
- ◆ Ogi artisauak

Barandiaran Taldea, 2
ZALDIBIA 880737

Nekane Goena lazkaotarra Londresen zerbitzari

6 hilabeterako joan eta 8 urte daramazki Nekane Goena lazkaotarrak Londresen. Ingelesa ikastera joan eta bere bihotzeko laguna aurkitu du, Jojo filipinarra. Hantxe bizi dira biak.

Hasieran 'aupair' bezala joan zen. Ondoren, berriz, jatetxe batean aurkitu zuen lana, eta gela bat alokatu zuen. Beti ere, ingelesa ikasiz. Beti jatetxeetan egin du lan, zerbitzari bezala. Gaur egun National Galeri pintura museoko jatetxean aritzen da. Japoniar-amerikar jatetxe batean ere aritu zen 3 urtez. Bitxia omen zen: "mahaian bertan prestatzen zuten janaria, haragia, mariskoa... Txapa bat bezalako zen eta jendea inguruan esertzen zen. Saltsa mordoa erabiltzen zuten".

Jan aldetik ingelesek dituzten ohituren berri ere eman digu Nekane. "Alde guztietako janaria aurki liteke han, ingelesek ez dute beraien janari tradizional bat eta orduan kanpoko jatetxeetara joaten dira, jate-txe txino, indio eta era horretako asko dago". Jendea askotan ateratzen da kanpora jatera, "hemen baino gehiago esango nuke. Behar bada astean 4 edo 5 aldiz. Jatetxe batera joan, mahaian eseri eta zerbitzaria izatea hemen baino garestiagoa da. Baina aukera

asko dago hanburgese-ri eta antzekoetan", dio Nekane. Etxean, berriz, prestatutako janaria mikro-uhin labean berotuta jaten dute, "ez dago janariak prestatzeko ohiturarik. Nik egunero hemen bezala prestatzen dut janaria".

Beti kanpotar

Lana aurkitzea ez da oso erraza Londresen. Errazena jatetxeetan edo bulegoetan omen dago. "Jende asko dago ni bezala bertara ikastera joan dena. Nahiz eta urte asko eraman lanean, beraientzat kanpotarrak gara".

Bertako jendea hotza da lazkaotarraren esanetan. Ingelesak ere ezagutu arren, batez ere bera bezala kanpotik joandakoekin erlazionatzen da. "Ingelesek hitz egiten duzu baina zaila da erlazioa egitea, ez dira saiatzen. Eta maila batean ulertzen dut, kanpotarrak "de paso" daude, ezagutzen dituzu eta lagunak egiten hasterako joan egiten dira, eta berririo hasi behar dira".

Familiarekiko lotura

Gehiena harritu duena familiarekiko loturarik eza da. "Bai beraiena eta bai kanpokoena. Kanpotik joandako jendeak etxera oso gutxi-



tan deitzen du, nik berriz, astero deitzen dut. Bertakoak 18 urte egin orduko, etxetik bota ez, baina laguntza guztia ematen die joan ditezten. Hemen berriz, gure gurasoek etxean edukiko gintuzkete ahalik eta denborarik luzeenean. Han ezagutu duden jendearen artean uste dut euskaldunok garesti familiarekiko lotura handiena dugunak, espainiarrak eta beste lekuetakoak baino gehiago".

Urtean behin, Gabonetan, etortzen da Lazkaora. Betirako itzultzea, oso zail ikusten du. "Hori berriz hastera izango litzateke, lana aurkitu... eta ez da betere erraza, dena aldatu da 8 urteetan. Ni urtean behin etortzen naiz eta beti naba-

ri izaten dut aldaketaren bat. Ni ere asko aldatu naiz. Jendea hemen beste era batera bizi da, oso lasai, lagun artean daude, hango eta hemengo hango oso ezberdina da".

Hiri haundietan oso gustura sentitzen da. "Beti gustatu izan zaizkit, han inork ez zaitu ezagutzen, inor ez da zurekin sartzen. Nik 3 urte daramazkit pisuan eta aldamenekoak ia ez ditut ezagutu ere egiten. Hori gustatzen zait, nahiz eta zenbaitetan, hitzegiteko norbait edukitzea gustura hartuko nuen". Lagun arteko giroa ere oso ezberdina da. "Lagunekin geratzeko 2 aste lehenago deitu eta planak egin behar dira. Distantziak oso handiak direnez, oso zaila da bilatzea. Zaila da hemen bezalako lagun giroa izatea. Zure aldetik bizitzea gustokoa baduzu oso ondo dago Londres".

Euskal Herriaz gain, Filipinetan ere badute familia, Jojo hangoa baita. "Ez gara inoiz izan han, baina badut gogoia. Berak ere 10 urte daramatza Londresen eta ez da itzuli, bere senideak Londresen bizi dira eta ez dio hark tiratzen. Gainera garesti ateratzen da".

ZEBSA

MAQUINARIA Y SISTEMAS DE LIMPIEZA, S.L.
Arizpe Auzoa, 2/g - Tfnoa.: 80 63 82
LEGORRETA

IBILGAILUEN GARBIKETARAKO TUNEL ETA ZUBIEN FABRIKAZIOA
INDUSTRI GARBIKETARAKO MAKINARIA
KAMIOI ETA AUTOBUSEN GARBIKETARAKO MONOZEPILOAK
PRESIOZKO UR SISTEMEN INGENIERITZA ETA FABRIKAZIOA

Z-GAR

EUSKAL HERRIKO BANATZAILEA
Ibabe Industrialdea, 28
Tfnoa.: 80 50 09 • Faxa: 88 43 67
LAZKAO

Z EBSERVIC S.L.

ASISTENTZIA TEKNIKO ZERBITZUA
Ibabe Industrialdea, 28
Tfnoa.: 80 51 50 • Faxa: 88 43 67
LAZKAO

GEZA

SERVICIO DE LIMPIEZA, S.L.

GARBIKETA INDUSTRIALA

UDALENTZAT ZABOR BILKETA ZERBITZUA
GARBIKETA BEREZIAK MAKINARIAREKIN

Ibabe Industrialdea, 28
Tfnoa.: 80 51 47 • Faxa: 88 43 67
LAZKAO

GAUR

KARROZATEGIA

Auto konponketa - margoketa

Mendizabal baserria

☎ 88 86 09

LAZKAO



Lazkaoko dantzariak duela 47 urte

Uste denez, 1950. urtekoa da argazkia. Lazkaoko dantza taldeari, Lazkaoko jauregian ateratakoa. Pilar Imazek utzia da.

Goiko ilaran, ezkerretik eskubira: Gurutz Barandiaran, Iñaki Agirre, Imanol Auzmendi, Inaxio Imaz, Juanito Txapartegi eta Migel Aldasoro.

Erdiko ilaran: Txomin Garmendia, Migel Albisu, Joakin Sarriegi, Migel Otaola (irakaslea), Enrike Bereziartua, Martin Barandiaran eta Angel Estala.

Makurtuta: Jesus Etxenike, Luis M. Mintegi, Jose Antonio Oiarbide, Pako Naldaiz eta Antonio Auzmendi.

LEKIM
HAROTEGIA

SUKALDEKO ALTZARIAK
ALTZARIAK NEURRIRA

Ibabe Industrialdea, 11 pab. ☎ 16 12 83
LAZKAO ☎(mugik.) 908 - 61 95 01

OSTAISKA
Goxoki denda

- ✕ Goxokiak
- ✕ Fruitu lehorrak
- ✕ Izozkiak

Elosegi, 2 **LAZKAO**

PIPAS
JATETXEA

Albitxu baserria
Tfnoa.: 88 08 05
LAZKAOMENDI

IZASKUN
DROGERIA

- Lurrindegia eta pinturak
- Paper pintatua, kortxoa, sintasola, moketa eta antzekoen salmenta eta ezarpena.

Mikelar, 2 ☎ 88 30 23 **LAZKAO**

ANDERE
USA INDEGIA

- Depilazioak
- Solarium-a

Gurutze, 3
☎ 88 30 02 **LAZKAO**



ARAKAMA HARATEGIA

San Prudentzio - ☎ 88 33 52
Uhaitz - ☎ 88 93 14
LAZKAO


BURDINDEGIA
GVREA

HORNITEGI
LANABES ETA
HORNIGAIK
SUKALDE TRESNERIA

Madalena, 2 Tfnoa.: 88 19 95 **LAZKAO**

LAZKAOKO FESTETAKO GIROA

ZELATA TABERNA



Giro ezin hobea!

Uhaitz, 1
LAZKAO

MANUEL-ENEA TABERNA

*Festa onak
pasa!*

☎ 88 20 29
Elosegi, 5 LAZKAO

GERRIKO TABERNA

Eguneroko bazkariak
Afariak

☎ 88 99 43
Elosegi, 16
LAZKAO

ALBOKA TABERNA



☎ 88 7197
Uhaitz, 2 LAZKAO

ESTANKO TABERNA

*Festa zoriontsuak opa
dizkizuegu denoi*

Elosegi, 7
LAZKAO

GURUTZE TABERNA

SANPROINTZIO JAETAN
PINTXOAK ETA BOKATAK

27-an eta 1-ean JAIK GOZATZEKO
GOIZALDERA
TXOKOLATEA TXURROEKIN

JAI ZORIONTSUAK OPA DIZKIZUEGU

GURUTZE 1 - LAZKAO



DORRAO TABERNA

*Ondo ibili
festetan!*

Elosegi, 4
LAZKAO

ANSOATEGI HERRIKOA



FESTAK ONDO
PASATZEKO TXOKOA

☎ 88 68 52
Elosegi, 15 LAZKAO

GIROA TABERNA

*Pintxo ederrak
jateko aukera*

☎ 88 77 40
Areso, 6
LAZKAO